

**ARANTZAZU BERRIA**  
**BIDEAN GORA**

*Itzulpena*  
Paulo Agirrebaltzategi

---

*Argazkiak*  
- Manolo Barros

MARIANO ERRASTI

**ARANTZAZU BERRIA  
BIDEAN GORA**

 **ARANTZAZU**

Oñati, 2008

ISBN: 978-84-7240-231-7

L.G.: SS-1672-2008

© Arantzazuko Frantziskotar Probintzia

---

ARANTZAZU E. F.

Arantzazuko Santutegia – 20567 Oñati

Tfn. 943780951 / Tfx. 943783370

---

Ategorrieta Hirib. 23, 1 esk. – 20013 Donostia

Tel. 943271713

P. E.: [abaltzategi@mendu2.euskalnet.net](mailto:abaltzategi@mendu2.euskalnet.net)

---

Banaketa / Distribución

Castillo de Villamonte, 2. – 01007 Vitoria-Gasteiz

Tfn./Tfx. 945147224

P. E.: [arantzazu-ef@euskalnet.net](mailto:arantzazu-ef@euskalnet.net)

---

A long, thin, light brown bone with a curved top, resting against a grey rock surface. The bone is positioned vertically, with the curved end at the top. The rock surface is textured and grey. The bone has a slightly irregular shape, with some darker spots and a small, knobby protrusion near the bottom. The overall appearance is that of an ancient or fossilized bone.

**BOST OHAR  
SARRERATZAT**

**K**omentuetako historia ilun eta aspergarrian noizbehinka halako aldaba-hots bortitzak astindu ohi du klausurako atezarra, barruko biztanleek gutxien uste dutenean. Iraultza-aldarria izaten da halakoa, fraideak beren buruko egiturak aldatzera deitzen dituen; argiune gertatu ohi da, tradizioari atxikienak dauden erlijiosoen begi motelduen pizgarri; haize-bolada moduan etorri ohi da, komentuko leihoak zabaldu, eta munduko artea eta ideiak, ekonomia eta sentiberatasun soziala aldatzen dituzten korronte berriak bertara sarrarazten dituen. Bat-batean dardaratu egiten da orduan komentu zaharra bere zimenduetatik, eta urratu gabeko bideetatik abiatzen dira fraideak nahitaez.

Atzean utziko ditugu Arantzazuko historiak ezagutu izan dituen garai garran-



tzizkoak: hasierako garai hura, nabarmena bertako penitentzi espirituagatik eta bizi-era soilagatik, edota XVII. eta XVIII. mendeetako, kultura barroko distiratsuarena. Gure garai honetan santutegiak ezagutu izan duen aldaketaz bakarrik jardungo da erreportaje hau. Orain mende erdi pasatxo, 1950etik hona, hasi zen Arantzazuko azken berrikuntza deigarri hau. Ordutik gaur arte harrigarria eta erakargarria gertatu da euskal frantziskotarren komentu hori, bertan burututako berrikuntzengatik: artean, liturgian, gizarte ekintzan, erlijiozko gaiak etorkizunera begira ipintzeko ahaleaginean...

Honako hau Felipe Juaristik du idatzia gaztelaniaz:

“Molde berriak ari ziren Arantzazun sortzen: Erlijiozkoa ikusteko modu berria, erlijiozkoa eta ez-erlijiozkoa lotzeko era berria, tradizio frantziskotarra eta azkenaldiko teoria politiko eta sozialak doktrina berean bateratzeko tankera berria, ortodoxiari ezer kendu gabe”.

Aske eta zabalik doa aurrera historia, kulturaren airetara emanaz etengabe berak urraturiko garai berrien zantzuak. Era-kunde batzuek garaiz antzematen diete

zantzuoi, eta ez dira hilda geratzen, betirako atzeratuta. Gainditua du horrelako arriskua Arantzazuk.

Garaien zantzuen ikuspegi horretatik ikusi ditu Joseba Intxausti historialariak Arantzazun gertaturiko aldaketok:

“Sekulartutako gizartearen erdian, eta fraide-bokazioen agorraldiaren aurrean, laikoen partaidetzarekin egin beharko diote aurre etorkizunari Santutegiak nahiz Fraideen anaiarteak, forma berriak bilatzeko eta bestelako zerbitzuak eskaintzeko, gizartearen, pentsamenduaren, kulturaren eta erlijioaren erronkei buruz jarrera irekia, erakundeen aldetik inola ez erraza, erakutsiz.

## 2

**A**zken urteotan Arantzazun buruturiko berrikuntza horiexek dira, hain zuzen. orri hauetako gai nagusia, Santutegira errepidez iristeko zeharkatu behar den lurralde aparteko honek iradokitzen dituen gogoetaz gain. Baina kontuan izan behar dugu, besteren batzuek aztertuak eta azal-



duak dituztela berrikuntza horiek liburu eta aldizkaritan, batez ere arteari eta historiari dagozkionak, modu zabalean eta jakitate onez. Alderdi grafikoari begiratu ta ere, argitalpen ederretan eta nolana-hiko ikuspegitatik erakutsiak dituzte bai santutegia bera eta bai inguruko lurraldea argazki-albumetan, gidaliburu turistiko-tan eta aldizkaritan. Bertako berrikuntza arkitektoniko eta artistikoei dagokienez, iazko 2007. urtean bertan argitaratu zuten balio aparteko eta zabalkunde unibertsa-leko obra foto-tipografikoa, FMR argi-taletxe italiarrak landua, Mauricio Bi-gnotti, Flaminio Gualdoni eta Giulia Carciottoren zuzendaritzapean; Roberto Bigano argazkilari ospetsuaren irudi gra-fikoak indar handiz nabarmentzen zaiz-kigu bertan.

Edozein idazlerentzat da oso erakar-garria Arantzazu; baina hain ugaria de-nez informazioa, kontu handiz ibili be-harrean da hori, komentu ospetsuaren inguruan zerbait argitaratzea erabakia duenean, inork esandakoa errepikatzeari—edota inori kopiatzen ari dela sala de-zaketengadik—ihes egiteko, ahal duen neurrian behintzat.

Hala ere, Arantzazu, dokumentu onetan oinarriturik aztertutako beste edozein leku edo gertakari bezala, beti dago irekita erreportajea izeneko literatur generoaren zaleak bere ikuspegi pertsonala eman ahal izateko, hau da, José Ortega y Gasset-ek “ibilian ikusitako en-oharrak” –*Notas de andar y ver*– izenez hain ederki definitu zuen genero horrentzat. Ate txiki horretatik sartu naiz, bada, neure erreportaje hau idazteko.

## 3

**G**aurko “Arantzazu Berri” hau sortu baino hainbat urte lehenago, ospe handiko zenbait idazlek erabilia du “bidai-oharrak” erreportajearen generoa: hala nola, Migel Unamuno filosofoak edo Armando Palacio Valdése, batak nahiz besteak Santutegira egin zuten bisitaren berri emateko asmoz.

1909ko irailean bisitatu zuen Arantzazu Unamunok. Ordurako Salamankako Unibertsitateko errektorea zen. *Del sen-*

*timiento trágico de la vida* eta *La agonía del Cristianismo* obren autoreak mendizale bezala egin zuen bere bidaia Arantzazura; honako helburu hauekin, berak dioenez:

[salir] “de mi rincón académico de Salamanca, para dar suelta a las sugerencias de estas libres escapadas por los valles y cumbres de mi tierra”, eta “limpiarme de las saburras de la vida ciudadana”.

Arantzazuko bisitarekin batera, honako bide-tarte hauek ere bete zituzten Unamunok eta beste hiru bidaideek beren txangoan: Bilbo-Elorrio, Arrasate-Oñati, Arantzazu-Urbia, Aizkorri-Otzaurte eta Aralarko San Migelera igoera.

Oñatitik Arantzazurako bidea oinez egin zuten.

“Emprendimos a pie la subida al santuario de Nuestra Señora de Aránzazu, la de más devoción en Guipúzcoa... Íbamos camino arriba, pian pianito, entre frondosidades recientemente lavadas por la lluvia. En un adusto repliegue de la montaña se alza el santuario y, junto a él, el convento de los franciscanos y dos hospederías, una de ellas abandonada”.

Bere kontakizunaren azkenean berriro deskribatu zuen Unamunok Arantzazu:

“Aránzazu (está) en un hosco repliegue, húmedo y escarpado, entre verdura, en un rincón monástico y eremítico, sin fisonomía ni perfil”.

Izan ere, 1909ko urte hartan, nekez ari zen santutegia suspertzen, gerra karlisten barruan 1834an eragindako erreketak utziriko hondakinetatik. Bizi-bizia zuen filosofo bilbotarrak gerrate haien oroitzapena Arantzazu bisitatu zuenean. Santutegiaren alderdi horixe nabarmendu zuen, nabarmendu ere: gerra haietan “gune estrategikoa” izana, alegia. Jauri “gerrilari eredu” eta Zumalakarregi “azeria” gogoratu zituen leku hau bisitatzean. Bere Unibertsitateko Errektore kargu handia ahaztuta edo, euskal mendietako karlista matxinatu ikusi zuen bere burua ere.

“¿Quién en estas alturas –galdetu zuen– no se siente guerrillero?... Yo también tengo mi fragoso Altobíscar, mi Aitzgorri pedregoso, mis crestas de águilas, mis madrigueras de zorros”.

Bere-berea zuen arren liskarrerako joera, jakin izan zuen Unamunok ironia eta onberatasuna, kritika eta ulerkortasuna bateratzen, Arantzazuko komentuan egindako bere egonaldi labu-

rrean. Honetara idatzi zuen orduan:

“A la comida (los frailes) no nos pusieron precio: lo que quisiéramos dar como limosna para el santuario. Es la zorrería monacal. Por lo demás, ya es sabido que el sacerdote vive del altar... Nos fuimos sin que el buen fraile que nos obsequió y enseñó el convento –sorprendiéndose de que yo conociera las “Floreçillas de San Francisco”– lograra averiguar quiénes éramos, y hay que ver lo que es burlar la curiosidad frailuna”.

#### 4

*U*namunoren erara, nik ere ez dut Arantzazuri buruzko azterlanik egiteko asmorik orrialde hauetan; bakar-bakarrik iradoki egin nahi dut, neure ikuspegi pertsonaletik, santutegiaren inguruneak eta bertako arteak erakusten dutena; eta bertan bizi direnekin izandako elkarrizketen bidez nahi ditut ezagutarazi beraiek bideratuak dituzten ideia aurrerakor eta proiektu berriren batzuk, alor sozialean, politikoa nahiz erlijiozkoa.

Esan izan dutenez, “nazioarteko arki-  
tekturaren historian nahitaezko errefe-  
rentzia” bihurtua da santutegia, horren  
eraikuntzan sarturiko berrikuntzengatik.  
Eta *The Times* egunkari ingelesak onartu  
zuen bezala, positiboa bezain harrigarria  
da Coventry-ko katedralaren lehiakide  
izatea Arantzazuko basilika berria, eder-  
tasunean eta arte-balioetan.

Hala ere, orrialde hauen autoreak ez du  
Arantzazu triunfalistik aurkeztu nahi, ez  
duelako uste, euskal santutegiaren beneta-  
ko helburua denik munduzabaleko arte-  
obra famatuekin lehia hutsalean ibiltzea,  
eta bai edozein leku sakratuk betetzekoa  
duen eginkizun xumea betetzea: hau da,  
gaurko gizon-emakumeen arazo erliji-  
ozko eta sozialei egiazko eta baliozko  
erantzuna ematea, eta ahal duen modurik  
eraginkorrenez gure gizarteari laguntzea  
bere alienazio arriskutsuetatik irteten.

Bestalde, euskal baserritarren semea  
naizenez —ohorez aitortzen dut—, baina  
baldartua neure ama-hizkuntzan eta ez-  
jakina Euskal Herriak bizi dituen arazo  
konplexuei buruzkoetan, mende erdi lu-  
zez Ameriketara bizi izan eta gero, bidez-  
koa dut Arantzazura igotzea, ez haren

loriak goraiatzera edota inori aholkuak ematera, hain zuzen, eta bai neure aldetik ikusi eta galdetzera: sufritzen ari den herriari argia eta itxaropena ekartze aldera adituek —ondo ala ez hain ondo asmatuta— eskaintzen dituzten irtenbideei buruz galdezka bakarrik. Ari dira sortzen han eta hemen horrelako baliabideak, hauskorrak eta anbiguoak oraindik; horrelakoxeak dira, hain zuzen, Arantzazuko berrikuntzetan nagusienetakoak.

Argi uzten dut idazlan honetan fraide frantziskotarra naizela; orain urte asko Humanitateetako eta Teologiako ikasketak egin nituen Arantzazun; 55 urtez Ameriketako misiolari jardun ondoren, orain neure herrira itzulia naiz berriro, adinean aurreratua. Atseginez aitortzen dut ondo tratatu nautela Ameriketako bertakoa baintz bezala; baina orain, Euskal Herrira itzultzean, pozik ikusi dut, era berean, neure sustraiak hemen ditudala; eta neure arimaren txokoan indartsuen piztu zaidan oroitzapena Arantzazurena da.


Arantzazurentzat dudak benetakotasun honek eragin dit orrialdeok idaztera. Baina arduragabekeria ez jokatzearren eginkizun honetan, hainbat aldiz igo naiz

santutegira; solasaldiak eta elkarrizketak eduki ditut hango neure anaia fraideekin; eta behin eta berriro irakurriak ditut gainera Arantzazuri buruzko hainbat idazlan. Hala ere, neure esanetan zuhur jokatzen saiatu naiz, erromes besterik ez bainaiz, erromes indiano, ikastea, begiratzea eta aztertzea dagokiona, eta ez ezer irakastea.

Aitortu beharra dut, hemengo lurraldea deskribatzea gertatu zaidala nekezena neure ariketa literario honetan. Hori behatzea ez da bakarrik berorren gora-eta-behera harrigarrioi begira jartzea, kanpoko “itxuran” geratuz; haitzon azaletik harantz barrura sartzen saiatzea da benetan behatzea, mendi eta troken kolore eta formek edota haizeak darabiltzan zuhaitzetako ostoez ezkutuan dutena bilatzea. Zuzen zebilen Bitoriano Gandiaga olerkaria, Arantzazuko sekretuak hain ondo ezagutzen zituen hura, esaldi xume hau idaztean:

“Zer kostatzen zaigun batzuetan begibistan daukaguna ikustea!”.

Bere erraietan du munduak egia, izaki guztiak eta gure geure barrunbea bateratzen diren “barruti” horretan, Rilke-ren





hitzak erabiliz. Arantzazuko lurraldearen behatzailerik handiena izan zen Gandiaga. Ondo zekien berak harkaitz gogorrean sustraituriko elorriaren pobretasuna eta oinazea atzematen –“harkaitzean geure bizitza zarpila lez”–, baina baita horren edertasun adieraztezina ere –“edertasuna baino sakonago den edertasun barren eta apal batez”– (*Elorri*).

Joxe Azurmendi idazleak idatzia du Gandiagari buruz, “besteok ikusten ez ditugunak ikusteko gai zela hura”, Krea-zioaren barruko misterioa, alegia: hain zituen gardenak hark bere begiak. Poetek bezala, Gandiagak ez zuen misterioaren azalpenik bilatzen, baina lortu ohi zuen misterioak behatzailearengan eragiten duen zerbait misteriozko hori adieraztea.

Ez dut esan nahi Arantzazura igotzen diren guztiek olerkari bihurtu behar dutenik. Baina denok dugu sentiberatasunik aski edertasuna atzemateko, hori adierazten ez badakigu ere. Paisaiak –bizitzak bezala– galdu egiten du bere baliorik funtsezkoena, poesiarik ezean.

“Ene Jainko, emadazu poesi lerro bat egunero, eta egunen batean idazterik ez badut, ez paperik eta ez argirik ez duda-

lako, errexitatu egingo dut gauez ezti-ezti, begiak zure zeru mugagabera jasorik”.

idatzi zuen Etty Hillesum neska judutar-  
rarak Auschwitz-eko sarraski esparruan era  
tragikoan hil baino urtebete lehenago.


Gaueko ilunean, itsututa eta gaixo ze-  
goelarik, sortu zuen San Frantzisko Asis-  
koak bere *Eguzkiaren* edo *Sorkarien Kan-  
tika*, pozaren pozak hartuta, bere biho-  
tzeko senide “ikusten” baitzituen sorkari  
guztiak, eder eta distiratsu, bere baitan.

## 5

**B**idaia-ohar hauetan iradoki nahi diot  
–iradoki besterik ez– irakurleari, egoki  
letorkiokeela berari, niri bezala, Arantza-  
zura igotzea, baina ez argazkiak ateratze-  
ra bakarrik, eta bai bere buruari galderak  
ipintzera, eta munduaren –geure mundu  
honen– arazoak konpontzeko erantzunak  
bilatzera eta aztertzeraz; egonezinean bai-  
tago gure mundua, eta sinestunoi nahiz  
sinesgabeei alde egin baitigu eskuetatik.

Sarrera hau amaitzeko, zera gaineratu gura dut: neure “ibilian ikusitakoen ohar” hauekin ez dudala irakurlea gogaitu nahi. Udan edo udazkenean Arantzazuko santutegira oinez doan edozein erromesek, gorako nekea eroangarriago egiteko bide bazterrean bil ditzakeen masusta gazi-gozoen eskukada modukoa du irakurleak iradokizun hauena. Hala bedi.


2008. urteko urrian





I

**IRADOKIZUN BATZUK  
GORAKOAN**



## 1. OINEZ IGOTZEA

Arantzazura bisitan edo erromes donanak, Oñatiko azken kaleak utzi eta landa zabalera irten bezain laster, espirituaren abenturaren batean menturatua dela nabari du bere baitan, indar berriren batek askatu eta goratu egin diola bihotza.

Erromesak erromesago sentitu ahal izateko –bideko, alegia–, oinez igo behar-ko luke Arantzazurako bidea, ahal izatera behintzat. Ibilgailuren batean doana, egonean bezala doa, bere nortasunik gabe. Ez

du izaten astirik, inguruan duen izadiaren ederra ederresteko ere, edota lurraldearen ahotsa entzuteko beharrezkoa duen isiltasuna “aditzeko” ere. Ona da, bai, eta osasungarria, oinez igotzea Arantzazura. Behin baino gehiagotan nabaritu izan du horixe lerro hauek idazten dituen honek.

Mutikoa nintzen ni lehenbizikoz santutegira igo nintzenean. 1937an izan zen hori, udazkenean. Gure aitaren eskutik helduta egin nuen gorako bidea. Ondo gogoan dut. Alkandora marraduna, perkalezkoa, neraman soinean, eta zango erdirainoko galtzak; txapela ere bai, neure ile nahasia estaltzearekin batera, mutiko baserritar formal eta zintzoaren itxura ematen zidana; eta patriketako batean tiragoma –txoriak txori!–, baserrian hazitako mutikoak nahitaezkoa duen ehi-zarako arma hori.

Orain, zahartuta, berriro ari naiz Arantzazura bidean gora. Bakarrik eta oinez. Taka-taka. Fardel bakartzat motxilatxo daramat –ogia eta gazta barruan–, eta ardo-zahatoa, bizkarretik galtzarbera zeharkatuta. Eskumako eskuan gorosti-makila, eta txapel handia neure ile zuria estaltzeko. Besterik ez. Dena da gehiegizko, gogo

itxaropenez beterik doanean, eta gorputza alai eta aske mahuka-hutsik; nahiz eta egia izan Gabriel Arestik idatzitako hura:

“Arantzazu hurrun dago, han goian, zerutik hurbil”.

Zorionez beste lagun asko doaz bidean gora oinez Arantzazura, gehienak talde txikitan. Oinez ibiltzen ziren garai batean Arantzazuko erromesak ere normalean, mendietako bidexka eta zidorretatik, nahiz Oñatitik gora irekitako galtzadatik.

Era berean, oinez egiten dituzte azken urteotan “Arantzazura ibilaldiak”, bakea, justizia edo gizarteko bizikidetzaren sustatzeko antolatzen dituzten igoera entzuetak, ehundaka fededun asko biltzen dituztenak. Erromesaldi jendetsu eta baterako horietan Apezpiku jaun txit prestua bera eta Frantziskotarren Ministro probintzial agurgarria ere oinez igo ohi dira, herriarekin bat eginda, bidezkoa denez.

Mendetako tradizioaz ari gara. Antzina, santutegira iristeko bide bakarrak gurdibideak, mendietako bidexkak eta aipaturiko galtzada –harri latzez egindakoa– zirenean, orduan maila sozial altuko edo odol urdineko jendea bakarrik igotzen zen zaldi gainean edo zalgurdiz. Felipe III.a,

Espainiako erregea, bere aita Felipe II.aren ondorengoa tronuan 1598tik aurrera, zaldi gainean igo zen Arantzazura. Antonio Cánovas del Castillo Espainiako gobernuburua Gesaltzaraino iritsi zen 1787an zalgurdiz, eta handik aurrerako tartea zaldi gainean egin zuen. Herri laua oinez igo ohi zen beti, osasun onari dagokionez eta giza duintasunak eta norbere buruari begirune izateak eskatzen dutenez.

Militar batzuk, ordea, oinez igo ziren, igo, santutegira, baina ez Andre Mariaren aurrean otoitz egitera. 1811n hara iritsi zen komentura soldadu frantsesen batailoi bat, fraideak atxilotzera. 1822an hara eraman zuen Castañón Teniente Koronela bere tropa, “bertan aurkituko zituzten fraide guztiak garbitzeko asmoz”. 1834an Antselmo Iñurriagarro militar gipuzkoarra ere, Rodil jeneral kristinoaren menpekoa bera, han agertu zen Arantzazura, bostehun soldadu berekin zituela; ez zituen, ordea, penitentzia egitera eramanak, komentua erre eta bertako fraide guztiak deportatzekotan baino; eta horrelaxe egin zuen, egin ere.

Honetarako aipatu ditut azken gertakari horiek hemen, ikusarazteko, bidaiaren me-



ritua ala meriturik eza ez dagoela bidea egiteko moduan, norberari eragiten dion asmoan baino. Pellokeria honek balio-ko ahal du, Arantzazurako bidea kotxez edo autobusean –gehienetan eroso eta luxuzkoan– egin ohi duten turista eta erromesak lasaitzeko.





## 2. EXODO BERDEA

Arantzazuko errepidean gora abiatu orduko, Oñatiko ibarraren berdeak argitzen ditu oinezkoaren begiak. Une horretan honako umorezko bertso hau errepikatu ahal du bidaztiak:

Banoa AITAREN IZENEAN  
Jaungoiko onaren bidean,  
SEMEAREN IZENEAN noa,  
Aldean ogi ta zahatoa,  
Ta ESPIRITUAREN IZENEAN,  
Neke ta penarik gabeen.

Belardietako berdearekin batera horra baserrien sendotasuna eta ederra: beren hareharrizko arkuen gainean daramate mendeen zama, eta agerian dute geranioen distira leiho eta balkoietan.

Ameriketatik Euskal Herrira etorri izan naizen azken aldiotan ikusi ahal izan dut, euskal baserria ez dela orain nekazarien bizilekua, fabrika edo kooperatibetako langileena eta Unibertsitateko neska ikasle lirainena baino, edota ordenagailutan trebatuak diren bulegariena baino. Antzinako ukuiluko ate aurreko guriaren ordeztua, batzuetan luxuzkoa, ikusten dugu, eta nekazarien etxetzar tradizionalaren inguruko lurrak belardi eta pinadi distiratsu bihurtuta daude, lehenago ereiteko soro-sailak zirenak.

Oñatiko ibar honetan, astiro-astiro Arantzazura naraman errepidearen alboetako lur aldapatsuok ez dituzte goldatu, itxuraz, aspaldiko urteotan. “Exodo berde” gertatu zait benetan Oñatiko kaleetatik landa hauetara irtetea, ametsetan asteko modukoa, hain daude lurrok berde kolore biziko belardi bihurtuta, edota pinadi —hau-ek ere berde, baina tonu serioago eta apa-lagoko—.

Nabaria da hemen, euskal nekazariak, bere lurretan egiten ez badu ere lana, landako bere baserrian –landetxean– jarraitzen duela bizitzen, bere sustraiak eta lurrarekiko bere maitasuna galdu gabe. Bere bizitzeko modua eta lanekoa aldatuak ditu, bere maila ekonomiko eta kulturalen gorantz egin du, baina asmatzen jakin du garaiz, laneko –nahiz politikako– sasoi orok dituela –gaindituta eta atzean gertatuta ere–, bere hainbat balio, betikoak, eta ez dela egokia horiei uko egitea.

Ikusia dut gauza bera gertatzen dela gure familian ere. Aramaioko antzinako baserri batean jaioa naiz ni. Orain mende erdi pasatxora arte bertan bizi zen gure familia nekazaritzan, laiekin irauliz lurra eta igitaiz ebakiz garia; simple eta natural zerion baserriari orduan bizitza iturririk jatorrizkoenetatik. Sekulabelarraren usaina zeukaten hango landek, eta arbi-lorearena, udaberrian; eta gaztaina erreena bertako sukaldeak, udazkenean. Gaur egun, aurre-rapenaren haizeak eramana dituzte usain osasuntsu haiek, eta herdoilak janda daukete laiak eta igitaiak. Baina ez dute botatzen nire bihotzeko baserri zahar hura; eta bertako garai hartako nekazarien gaurko

ondorengoak han ondoan bizi dira oraindik, fabriketako langile edo enpresa txikitako zuzendari bihurtuta, sasoi berriotara egokitutako etxe berrian, hiriko zarata eta kutsaduratik urrun, eta landa-lurraren berde iraunkorra gozatuz.

Ibilian gora noalarik ikusten ditudan belardi berde hauek ondo aldarrikatzen dute euskal langileen oraingo mundua alaiagoa eta eramangarriagoa dela. Atzean geratu dira garai hain gogor haiek, lan-sistema anker eta zuzengabeki ordainduak eta erlijio-modu legepeko eta zapaltzaileak iluntzen zituen haiek; gure guraso eta arbasoek ezagutu zituzten halako garaiak atzean geratu dira betirako. Zoriona eta irribarrea darizkio gaurkoari; anbigutasun apur batez, hala ere, beti bezala. Horrela du ikusia zenbait olerkarik, hala nola Bitoriano Gandiagak:

“Eta esan egin behar dut, ekaitz ondoko zelaiak halatsu, zorion hau belar-izpi berriez, lorez eta gorako luzapen alaiz, oskarbipean zutituz, eta hedatuz airearen eta haizearen begietan oihukatuz aterrun busti eta epeletako bizipoza” (*Denbora galdu alde*).

Uste dudanez, Arantzazuko olerkari handiak bere bizitzan nabaritu izan zuen

onerako aldaketa hori, nekazariei buruz oro har esan ahal dugu, bestelako mailan bada ere.

Euskal Herrian gertaturiko benetako hobekuntza horiek neure kaskoan iraulka darabiltzadala, bat-batean soziologi ikaslearena egitea otu zait behin behingoz; eta, fraideok hain errotua dugun halako xalotasun modukoaz hauxe galdetu diot neure buruari: ezinezkoa ote litzatekeen herrien aurrerapen sozio-laborala odolik eta erreboltarik gabe lortzea, biolentziaren eta mila motatako interesen aurretik elkarriketa eta giza zentzu ona ipiniz.

Oñatiko baserri zaharberrituok miretsiz noalarik, beste burutapen hauek ere badarabiltzat neure kaskoan: gizartearen eboluzioan ez dagoela behin-betirako kultur aurrerapenik edo aldaketarik –horixe erakusten du euskaldunak bere etxaldeari dion atxikimenduak–, politikako joan-etorrietan ez dagoela inolako proposamen politikorik erabatekotzat hartzekorik, eta gizartearen gorabeherak erlatibizatzea zuhurtzia onekoa dela.





### 3. BASAEREMU SAKONA

Esteban Garibai jaunak, Arantzazuko lehen kronista izan zenak dioenez, santutegia eraikita dagoen parajea “basaeremu sakona da, bertan bizi-ezinekoa”. Urrexolako Haitzak indarrez jartzen du, jarri, ageri-agerian lurralde menditsu honen gogorra, harkaitz eta troketan zirt edo zart dagiena. Bere harri gogorreko labarrekin errukirik gabe ebakitzen du horrek, gillotina erraldoi eta ankerraren antzera, Oñatiko ibarraren bakea, hain ederki ipinia; eta harkaiztegi eta amildegien nagu-



sitza ezartzen du, Arantzazuraino aginduko duena, han baititu eraikiak bere azken gotorleku boteretsuenak: Aitzabal, Bellostegi eta Gazteluaitz.

Arantzazuk, antzinako bere izaera jatorrizko hartan irauten duen mendia izanik, giza eskuek menderatu eta manipulatu gabea, alegia, aukera eskaintzen dio edonori, gure zibilizazio teknologikoaz nekatuta sentitzen den orori, askatasunerantz ihes egiteko. Denok jasaten ditugu gure gain ezarriak ditugun bizieraren eta lan-moduaren ondorioak. Geureaz bestelako munduan bizi gara, mundu birtualean, teknologiak eta hadabideek ezarritakoan. Gizakume eta emakume, denok atera gaituzte geure izaera eta ingurune naturaletik. Ez gabilta, ibili, geure muskuluek markaturiko erritmoan, auto eta hegazkin gero eta bizkorragoen menpe baino. “Ziberespazioak” inguratuta gaude, eta horko uhinen gainean ari dira “nabigatzen” gure garaiko kultura eta aurrerabidea, internetaren, posta elektronikoen eta sateliteen hegaletan. Ordenagailuen nagusitasunak agintzen du irakaskuntzan, lanean nahiz lagunen arteko harremanetan.

Gure mundu artifizial eta aldi berean harrigarri eraginkor honek baditu bere alde onak ere, eta atzera itzuliezina da gainera; baina badu arriskurik, gu geu gero eta hutsalago eta asegabeago uztekoa, alegia. Frances Cairncross kazetari britainiarrak zera idatzi du bere *Distantziaren heriotza* liburuan: Komunikabideen iraultzak lan-tegien garapenean eragindako aldaketaren ondorioz “pertsonak ez direla beren nortasunaren itxura gorpuztuak besterik izango”. Horixe tristea patua!

Etengabe joan-etorrian eta isurian ari zaizkigun albisteek eta irudiek gainezkatuta gaudelarik, errealitate iraunkorren, mendietako bakearen, isiltasunaren eta bakardadearen bila dihardugu gizon-emakumeok; eta “txipen” agintepetik askatu nahian. Lasaitasuna eta benetako gizatasuna bilatu behar horretatik sortzen da neurri batez gaur eguneko turismoa ere.

Landa-lurretan oinez dabilenak, gorago ohartu dugunez, ez du aski —ez du izan behar aski— eremu fisiko soiltzat hartzea lurra, sinboloz beteta baitago edozein lurralde. Adibidez, Zapatako errepide erdiko harkaiztxoa atzera utzi, eta Oñati ibarreko lur bigunaren ordeztu aurrean ageri

zaidan harriaren gogorra ikustean, ez dut aski ohartzea edo esatea, haitzak nagusi diren alderdira iristen ari naizela, besterik gabe. Bidezkoa izango dut “gauzen ideiak” irakurtzen saiatzea hemen, harrietan idatzita dauden sinboloak, alegia.

Goialde hauek zeharkatzen zituen Arantzazuko galtzada zaharreko harlauze-tan ozenki diraute oraindik erromesen urratsek eta otoitzek. Gandiaga olerkariari Salvatore Mitxelenak erakutsi omen zion horiek aditzen.

“Uribarritik gora, Arrikruztik gora, Gesaltzatic gora, Zapiarbetik gora datorren galtzadako harrien hitza” (“Abenduaren hogeiko”, *Arantzazu*, 1966).

Nire inguruko amildegi malkartsu hauetan gora jaikitzen diren haitzok ez dira haitz soil, besterik gabe; haizeak, elurak eta eguzkiak mendeetan zehar landutako irudiak dira, eta mintzatu egiten zaizkit niri orain, eta niri egiten didate oihi, naizen hau guztia dardarka ipiniz osorik.

Nire gorako bide honen helmugan zain dauzkadan Jorje Oteitzak zizelkaturiko harri-blokeak, basilikaren aurrealdeko frisoa Apostolu haiek, “arteak bizi berria

emandako harriak” dira, Jabier Garrido teologoaren hitzetan.

Dena da harria hemen; baina hain sinboloz betea izanik, euskal kulturako gai nagusi bihurtu zen harriarena, Felipe Juaristi idazleak idatzia duenez: Harria da “hirurogeiko urteetako euskal literatura-ren muin-muineko gaia, eta baita eskulturararena ere, bereziki Jorje Oteitzarengan”. Gogoan hartzekoak dira Gabriel Arestiren poema nagusietakoen tituluak: *Harri eta Herri*, *Harrizko Herri hau...* Arantzazuri buruz ari zela, hain zuzen, konturatu zen bera, “harria, edonondikan harria” zirela santutegirako bidea nahiz hango eliza bera.

Arrokak, txarak eta sasiak, elorriak, urritzak eta ahuntzen bidezidorrak, denak nahasian: benetan paraje basatia malkartegi hauetakoa! Horrelakoxean ebakitako errepidean gora noa ni. “Arantzazu! leku basatia hura”. Definizio horrexekin harrিতuta utzi omen zuen behin batean Bernardo Atxaga agure baserritar batek, *Asisko Frantziskoren eta lagunaren Loretxoak* liburuan (Arantzazu, 2003) dioenez idazle sarituak berak; babilio osoa du oraindik baserritarraren de-

finizioak, nahiz eta mende erdia joana den arkitekturako obra moderno eta artistikoak eraiki zituztenetik. Bere izaera basatiari esker eusten dio oraindik bere egitura teluriko bortitzari Arantzazuko lurraldeak, Gandiaga olerkariak hain maite zuenak; oinez ibiltzen zen bera hor, apaltasunez eta begirunez:

Apaltasunez  
 igaro ohi ditut  
 oihanotako  
 bideok  
 oihanok berok apaltasunez,  
 begirunez,  
 belarri ernaiz.

Eta aberastu ere aberastu zuen lur hau berak, 4.400 zuhaitz aldatuz bertoko troketan, Pello Zabalak ateratako kontuen arabera.

Goethe-k zioen, “gauza guztien jatorrizko misterioaren aurrean benerazioz belaunikatzea dagokigula”. Haratago joan zen Gandiaga. Hain sakonki atzeman zuen ingurune basatiaren erlijiozko esanahia Santutegitik hurbileko mendian berak aurkituriko Artasoko trikuharri hartan, non bertako lur birjina sakramentua egiteko gaitzat edo erabili baitzuen.



Berak du aitortua bere *Hiru Gizon Bakarka* liburuan.

Lurra hartu dut eskuan  
muin emateko,  
besarkatzeko,  
bularrean herstutzeko  
luzaro.

Eta gero,

nere burua baino  
gorago jasoz eskua,  
burutik behera utzi dut  
sorbaldaz behera jausten,  
neure lur guztiz behera,  
lurrezko bataioaren  
seinaletan.

Horrelatsuko arrazoi hain jatorrengatik igotzen dira mendizaleak, bestelako turista eta txangozaleez gain, Arantzazura, eta bertoko mendi-gailurretara. Janzeran eta beren pauso bizkorrean antzematen diet; aurrea hartzen diote nire ibilera geldiarri. Gerorago, errepidea utziz, mendian gora joko dute, Aloñako, Artzanburuko, Aizkorriko edo Aketegiko gailurretara, edo Urbiako goi-zelai zabalera, edo Elgea aldera eramango dituzten bidexka eta zidorretatik gora.

Mendizaleak ez dira gora igotzen, igozte aldera soilik, hiriak ukatzen dizkie-

ten balioen bila baizik. Osasuna, keme-  
na, idealismoa eskaintzen ditu mendiak.  
Baita euforia ere; isilik igotzen baita men-  
dizalea, igo beharraren beharraz, baina,  
behin gailurra hartuta, kantari hasten da,  
eta goraka, eta airea eta politika astindu  
beharrean. Hara hor nola lehertzen den  
igoerako isiltasuna, eta iskanbila suhar  
eta giza irrintzi bihurtzen.

Bide batez, inoiz ez dut ahaztu muti-  
kotan neuk ikusitako hau. Zortzi bat urte  
nituen nik orduan. Leintz aldeko auzoe-  
tako bateko zaindariaren jaietara eraman  
ninduen gure aitak. Ilunabarrean isilik  
itzuli ginen etxera, landetan zehar, mui-  
noak igoz, errekaak zeharkatuz, pagadi  
eta hariztien artetik. Gailur batera iristean,  
geratu egin ginen. Gure oinetan zabal-  
zabala zen basoa, ostertzean galtzen zen  
arte. Halako batean, tente jarri zen gure  
aita, goratu zuen burua, luzatu zuen zama,  
eta haritz tantaietako baten goiko burura  
begira, irrintzi hain ozena eta indartsua  
bota zuen, non inguruko basoetako hontz  
guztiak iratzarri baitzituen, urruneraino.

Ama Lurraren seme-alabak gara.

“Lurralde bakoitzak bertako giza arraza  
lantzen du, tantaka”,

idatzi zuen José Ortega y Gasset filosofoak. Ordenagailuek eta makinek gure lanaren produktibitatea handitzen dute; baina bizia hartu, lurretik, mendietako airetatik, ibaietako uretatik hartzen dugu bizia.








## 4. LEIZEETAKO MUNDUA

Bakoitzak bere modu berezia bilatzen du Arantzazuko mendietan bere gizatasunean hobeto sentitzeko. Osasunaren mesedetan doaz batzuk, eta onddoen atzetik dabilta beste batzuk udazkenean; beste batzuek –ameslariagoak izaki– lurraldearen ederra miresten dute; eta bada iraganaren misterioaren, euskal herriaren eta kulturaren sustrai sakonenen miaketan jarduten direnak ere. 1917. eta 1918. urte haietan, J. M. Barandiaran, T. Aranzadi eta E. Eguren Urbiara igo

zirenean, han aurkitutako trikuharriak induskatzera, ez zihoazen osasunaren edo edertasunaren bila, gure herriaren jatorri ilunen sakonetara iritsi nahian baino. A. Armendarizek ere ez zuen, zalantzarik gabe, ordu askorik galdu amets poetikotan, 1985etik aurrera, santutegiaren oinetan dagoen Anton-koba izeneko haitzuloa aztertu zuenean.

Haitzuloek badute ahalmenik gu geu gizatasunean hobetzeko, geure arbaso antzinakoengana hurbiltzen baikaituzte. Ugariak dira Arantzazuko mendietan leizeak eta haitzuloak. Gainera, haitzuloek ez ezik, hemengo aire hain mehe eta finak ere bizkortu egiten digu irudimena, ipuin eta mitoz beteriko antzina-antzinako aro haiek berriro bizi ahal izateko. Jentil-aro hartako zeruetako aire hura bera da gaur hemengoa: izaki misteriozkoek zeharkatzen zituzten orduan zeruok, eta ez, hegazkin trumoitsuek, orain bezala. Oroitzapenak berritzeko indar handia du mendietako aireak.

Arantzazuko lurraldean gero eta barrurago sartu ahala, hurbilekoago, ia ukitzeko moduko, bihurtzen zaizkit antzina-ko garai alegiazko haiek. Mari, lurralde



hauetako jainkosa zen orduan hemengo erregina; Mari apetatsu hura, bai, bere jauregi ezkutua Anbotoko haitzuloan zuena eta Arantzazuko zeruetan zehar bidaiatzen zuena, Aloñako eta Aizkorriko bere babeslekuetan hartzen zuenean ostatua. Igitai argitsuaren itxuran ibili ohi zen Mari airetan, edo ahari hegalariaen bizkar gainean, haur fantasiadunen eta gizon-emakume sinesberen harridura piztuz.

Behin batean, mutikotan Urkiolara nindoala, Anbotoren oinetik igarotzean, deitu egin nion Mariri deiadarka. Hark, ordea, ez zidan erantzun. Bere eginkizunik gogokoenean oso hartua ibiliko zela otu zitzaidan: urrezko hari mehe-meheak hariltzen, alegia. Gaurkoan ere, Arantzazura igotzen ari naizen egun argitsu honetan, ez da hemen Maririk ageri. Beti zituen hark maiteago zero lainotuak bere goialdeko hegaldietarako, euri-zaparradak edo ekaitz zaratatsuak lehertzeaz zeudela. Gaur egunean ez da ageri, ez euria ari duenean eta ez trumoia jotzen duenean ere. Neutro bihurtu da airea. Lapurtu egin diete meteorologoen haizeari eta hodeiei berauen misterioa. Lapurtu egin digu poesia zientzia lapur handiak. Hila da Mari.

Batzuek –batez ere turistek– nahiago dute mendien barrunbeetan ibili, mendi-gailurretara igo baino: ez, hain zuzen ere, hondakin arkeologikoen bila, eta bai lurrak bere harrizko biltegietan gordeak dituen miragarriak ikusten. Horietakoa da 2007an Arantzazu aldean jendearentzat ireki zuten Arrikruzko haitzuloa, adibidez.

Lurraren erraietara sartzeak norberaren bihotzera sartzen laguntzen digu. Kanpoko gauzez aseta, irudi txundigarritz, sentsazio, albiste eta amets erakargarritz gainezka gauden honetan, egokia dugu, milaka urte dituen haitzuloko isiltasunean jarri, eta inoiz gogoan erabiltzen ez dugun honako honetaz ohartzea: geure bizkar eta bularraren arteko barrunbe ilunotan, geure barne muinean daukagula gordeta geure altxorrik handiena: geure intimitatearena, alegia.

Lurraren zulo sakon horietan grabatu du denborak, milaka urtetan barna, munduaren eraketaren historia, CDan bezala; gure geure traszendentziaren misterioa agertzen digute haitzuloek.



## 5. ERROMES MODUAN IGOTZEA

Bere bidaiari erlijiozko zentzua eman nahi dionak leku aukerakoak ditu mendietan eraikitako santutegiak, hala nola Arantzazukoa, exodoaren abenturari errotikago ekiteko beta ematen diotelako. Egunero dabilen lekuetatik irtetea eta ohi-koak dituen bere biziera eta lan-modua etetea erabakitzen duen erromesak, bakar-dadea, goialdeetako aire fina eta sinbolo erlijiozkoen misterioa besterik aurkituko ez dituen lekura joateko asmoz: halakoak

badu ausardiarik larru gorritan jartzeko, fedearen eguzkiak eman diezaion; eta horrelaxe da, izan, nahiz eta osasun hobearren bila edo ametsetako betegarriren bat aurkitzeko itxaropenak eraginda egin izan halakoak bere urratsa. Galdezka ari zaigu beti mendia.

Zapatako harkaiztxoa atzera utzi ondoren, eta amildegi arriskutsua dudalarik eskumara, laga egin ditut fantasiaren fikzioak, eta neure sen onera itzuli naiz, ez baita egokia txantxetan eta jostaketan aritzea honelako bazter hain malkartsuetan.

Aldapa neketsu hauetan gora igo izan da Euskal Herria, mendez mende, gurutze bide latzean, bere neke-penen gurutzea bizkarrean, itxaropenaren eta kontsolamenduaren bila, inoiz iristen ez den bakea eskatzera, eta askatasunaren zantzuak –inoiz ez seguruak– sumatuz.

Gogoan daramat nola, Arantzazuko bide gogor honetan ikasi izan duen euskaldunak zutik irauteko bere ahaleaginean ez etsitzen, eta zuzengabekeriak jo dituenen izenean aurpegia ematen. Gogoan daramat, era berean, nola, Arantzazuko erre-

pide hau galtzada latz eta zakarra besterik ez zenean, igotzen zen hemendik gora erromes euskalduna, helburu zintzo eta jatorrek bultzatuta: Jainkoarekin bakeak egin eta adiskidetzera; edo Hari eskerrak ematera: soroak ereiteko euriak garaiz iritsiak zirelako, edota etxeoandrea —maratza eta haur ugariduna bera—, berriro osasun onera etorria zelako txarrantxalanaren garairako, edota Ternuara baleak harrapatzera joandako semea bizirik etxeratua zelako.

Arantzazuko Balada edo Kanta Zahar ederrenetako batek honetara kontatzen du emakume erromes haren igoera santutegira:

Agostuaren amabosgarren  
Andra Maria goizean  
Birjina Amaren debotatxo bat  
Arantzazura zijoan.

Oinetan ere zapata gabe,  
abitu beltza soinean,  
san Frantziskoren kordoetxo bat  
gerrian hiru doblean.

San Agustinen liburutxo bat  
eskutxo bien erdian,  
Pausua baratz botatzen zeban  
Urtiagako gainean.

Ala bere ta baratzagoa  
 san Eliasen parean.  
 Aingerutxo bat irten zitzaion  
 san Eliasen parean:

Salbetarako helduko zela  
 kurtzepizio gainean,  
 Kurtzepizio gainean eta  
 Birjina Amaren etxean.

Erregu eder egin zizkion  
 Birjina Amari aurrean  
 Birjina Amari aurrean eta  
 Santiagori oinean.

Moro herriko katibu denak  
 libra zitzala aidean.  
 Moro herritik banator ere  
 neu ez naiz moro umea.

Iñigo Loiolakoa da Arantzazura erro-  
 mes etorri izan diren euskaldun horien ere-  
 du nagusia; asmo larri eta bete beharreko-  
 ek eraginda etorri zen hura. 1522an igo zen  
 Iñigo Arantzazura, mando gainean, –“ca-  
 balgando en una mula”–, eta bere anaia  
 apaiza Pero López Loiolakoa –moraleko  
 gaietan nasaikeriatan zebilen klerikoa be-  
 rau– eta bi ezkutari azkoitiar, Andres Nar-  
 baitzekoa eta Joan Landetakoa, lagun zi-  
 tuela. Bere konbertitu-berriaren asmoak  
 kate motzean lotzera etorri zen Iñigo  
 Arantzazura, artean ez baitzeuzkan nahi-



koa kontrolpean kontinentziarekikoak; izan ere, lehentxeago zion egina Jainkoak bizimodua aldatzeko mesedea –“merced para que hiciese alguna mutación”–. Hogeita hamabi urte geroago, 1554an, go-goan zuen artean San Ignazio Loiolakoak Arantzazun igarotako gaubeila. Horrelaxe aitortu zuen berak Erroman, hil baino bi urte lehenago.

Halako historia ereduakoez bihotza suspertuta, banoa bidean gora gelditu gabe. Goizaldea aurrera doa, eta gero eta auto gehiago ari da igotzen, eta, aldika, autobusen bat ere bai, harrigarri handi eta koloretsu, txangozalez betea.


Adeitasunez ez ezik egiazko xeraz agurtzen ditut oinez doazen erromesak, niri aurrea hartzen didatenak; baina ez nahiz horiekin solasean hasten.

— Egun on!

— Agur!

— Ondo ibili!

Nahiago dut isilean joan. Isiltasuna, adeitsua denean, arreta eta begirune pres-tua agertzeko era da. Erromesaren bide egiteko modu berezia da, batez ere,



isiltasuna. Isilean joanez eman ahal diogu balio onik bide egiteari. Bakardadearen zapore mingotsa dastatuz konturatu ohi gara, egun batzuetan hobe duela norberak bere buruarekin bakarrik baliatzea, bere gogoetatik kanpora aterako duen edo bestelako gogapenetara eramango duen inor gabe alboan. Isiltasuna, opari handia horixe!

Berezko balioa du isiltasunak, eta bere jakinduria du, bere-berea. Paradoxa nabarmenez baliatuz, honetara idatzi zuen Friedrich Nietzsche-k:

“Hauxe dut neure gaiztakeriarik eta neure trebeziarik gogokoena: nire isiltasunak ikasi izana ez salatzen bere burua isiltzeagatik”.

Isiltasunaren legeko lehen agindua da, norbere baitan egitea isila, hau da, ez saiatzea besteak isilarazten, eta begiruneko izatea lagun hurkoaren izaera eta pentsararekin.

Bidea isilik egitea biziera jakin baten, kultura modu jakin baten sinbolo bihurtateke. 1957an Jack Kerouac-ek bere *Bidean* nobela argitaratu zuenean, Amerikako Estatu Batuetan zehar berak egindako bidaia kontatzeaz gain, hauxe eman zuen

ezagutzera liburuaren bidez: badagoela kultur aldaketa egiterik, bestelako zentzurik eman ahal diogula giza bizitzari.

Isilik igotzea erabakitzen duen erromesak, sinbolo izatearekin batera, errito ere badu Arantzazuko santutegirako igorera: konbertsio prozesua du, bere biziera-aldaketaren bidea egitea. Horrela ulertu behar dugu, gutxi gora behera, San Ambrosiok, bere idatzietako batean jaulki zuen galdera ezagun hura: “Ba al da bidaia luzeagorik, geuregandik urruntzen gaituena baino?” IV. mendearen hasiera hartan, Erromatar Inperioko kontsul prefektua izan ondoren Ligurian eta Emilian, Milango artzapezpiku aukeratu zuten Ambrosio, herriak hala eskatuta. Pobreen artean banatu zituen bere ondasunak; eta Erromatar Zuzenbidea zuzentasunez betetzen egindako bere esperientzia kristau jakinduriaz eta Elizaren aldeko zerbitzuaz aberastu zuen; nahiago izan zuen Liturgiako kantuaren ederra, bere jauregietako edergarriak baino; gizarteak eskainitako ohorearen ordezkari Jainkoaren ohorezko gurtza aukeratu zuen. Bide luzea ibili behar izan zuen, beraz, bere pentsaeran eta bizieran, eta horrela ezagutu zuen,

fedearen argitan eta norberarengandik urrunduz giza bizitzan egin daitezkeen eta egin beharrekoak diren bidaien benetako zentzua, egiazko norakoa.

Eta gogoeta hau egin dut: Oñati eta Arantzazuren artean dauden bederatzik kilometroak ibili arren, neure jokaera eta pentsaera aldatzen saiatzen ez banaiz, erromesari dagokionez, metro erdiren bat ere ez dut aurreratu izango. San Ambrosiok eraman nazala eskutik.

Maisu ona da isiltasuna. Atsedena eskaintzeaz gain, aholku onak ere eman ohi dizkigu. Adibidez, zera gogorarazten digu, besteak beste: beharrezkoa dugula geure sen onetik kanpora bizitzetik gordeko gaituzten balio eta printzipioei lotuta edukitzea geure pentsamendua eta borondatea. Isiltasunak ohartarazten gaitu, ona dela helduleku finkoren batzuk edukitzea, bai familian eta bai gizartean. Kontzientzia, esate baterako. Geure buruari kontuak hartzeko ahalmen bitxi eta baliagarri horixe da kontzientzia, geure buruari iruzurrik ez egiteko jakinduria eta trebetasuna. Geure geurekoikeria soka motzean lotzeko beste uztai egokietako bat zintzotasuna dugu, bertute zaila bezain



beharrezkoa, politikaren labirintoetan eta justizia egiterakoan galduta ibil ez gaitzen.

San Ambrosioren garaiko predikari bihurtzeko arriskutan nabilela eta, neure arreta bestelakotan jartzen saiatu naiz, inguruko paisaia kontenplatuz. Neure makila euskarritzat hartuta, indarrez gora altxatzen diren haitzoi eta azken barrenik gabeko leize hauei begira jarri naizen orduko, erromes bat inguratu zait, bere fedean berokeria larregiko eta partzialera lerratua dabilena, itxuraz.

— Hemen bai! —esan dit berak—. Hemengo paraje berebiziko eta ireki honetan bai agertzen duela, eta begien aurrean ipintzen, Jainko kreatzaileak bere ahalmena ukaezinezko moduan, eta ez hirian edo ibarretako herrixka babestu horietan. Leiho pare bat besterik ez dute horietako elizek, eta sagrario barruan sartuta daukate Jauna, giltzapean itxita, minutuz minutu neurturiko elizkizunetara moldatu beharrean, apaizen, mojen eta sakristauen menpe, beren esku baitaузkate horiek kanpai gogaikarriak ere... Ez duzu uste, jaun hori, kikilduta daukatela Jainkoa horrelako elizetan?

Gure erromes hiztun eta grinatsu hau minduta dago bere baitan, garaipenetako Jainkoa ia ia espetxeratua omen daukate-lako; fanatismo erromantiko modukoren batek dauka harrapatua, zalantzarik gabe. Horregatik ezer ez erantzutea erabaki dut. Beraz, neure aldetik txintik esan gabe, bera bere bideari lotzea lortu dut, eta aldi berean nik neuk Urrexolako Haitzari begiratzen jarraitu ahal izan dut, alferrikako eztabaidetan sartu gabe.

Jainkoaren presentziaren zantzuak adierabikoak dira; eta uste dudanez —nire kontenplazioa eten duen erromesaren iritzia- ren aurka—, badira arrazoiak pentsatzeko, Kreatzailea, handi eta indartsu agertzeaz gain, *Jainko ezkutu* ere ageri zaigula, Isaias profetak deitu zuen bezala; gailur hauetanxe ageri ere.

Paradoxa badirudi ere, bere obrarik ikusgarrienetan ezkutatu ohi ditu Jainkoak konturik handienaz bere ahalmena eta bere burua. Arantzazuko harkaitz erraldoi hauetan, geologiak egin eta desegin izan dituenotan, milioka urtetan barna mila bider eraitsi eta berreraikitako hauetanxe, hain zuzen, geratzen da lausotuxea eta ezkutu antzean Jainkoaren eragina

Beraren etengabeko sormenaren sako-  
nean, sumatzen zaila gertatzen zaigun  
horretan... Sormen etengabea horixe, ez-  
kutukoa eta apala den arren. Jainkoak be-  
re burua ezkutatzearen misterioa nabar-  
mentzen dute haitz hauek. Jainkoaren  
ahalmena baino areago Haren apaltasuna  
ageri dute. Izatea eman dien izakiek be-  
ren kasa jarraitzea nahi du Jainkoak; eta  
fedean bakarrik ikus dezakegu Bera, be-  
re lana izenpetu gabe uztea atsegin duen  
langilearen antzeko. Ez zaio inori gai-  
lentzen, ezta Arantzazuko haitzok eta ho-  
rrelako gauza itzelak egitean ere.

Jainkoarengan ere ez du itxurak egiten  
Haren duintasuna, izateak baizik, bete-  
betean izateak, handienetan nahiz apale-  
netan eta kaxkarrenetan. Horixe erakus-  
ten didate bat-batean neuregandik metro  
gutxitara agertu zaizkidan loretxo hauek.  
Elkarte txikiaren modukoa dute eratua  
bitxiloreok. Ingurura begira nagoen labar-  
ertz arriskutsu honetantxe bizi dira, klau-  
sura zorrotzean edo. Uste dudanez, Aran-  
tzazura bidean doazenetatik inork ez ditu  
aurkitu, inork ez die gaur arte begiratu,  
baina pozik bizi dira horiek beren xalo-  
tasunean eta inozentzian, goialdeotako

haize finak laztantzen dituelarik. Pozik bizi dira, beren izatean izanik, besterik gabe, Jainko ezkutuaren, beraiek bezain apala denaren misterioan dutelako beren izatea. Esperientzia xume honexen aurrean ere ikusi ahal izan dut, merezi duela Arantzazura igotzeak, erromes bakarti, isilean.





## 6. SENTIMENAK ZABALIK BIDEAN GORA

Esana dute, “lurraldearen eitea dela gizadiaren eskultore handia”. Gure inguruko lurraldeak, lurraren formak, eragina du gure izatean, hitz egiten digu eta erakutsi. Horregatik da egokia sentimenak zabalik igotzea Arantzazura, ikusi, entzun, usaindu, ukitu, dastatu egin dezaten horiek.

Jakina da barrutik zaizkigula argitzen begiak, geure baitatik, baina kanpoan behatzen eta ikusten dituztenen aldetik ere

argitzen dira horiek. Kontenplazio-zaleek –“begira-zaleek”, grekoek esaten zutenez–, “ispilu-arima dute..., gauzen izatearren isla garbia jasotzen baitute”, Ortega y Gasset filosofoaren hitzetan. Horregatik metafisika-irakasleak ez zuen liburuetan bakarrik bilatzen jakituria, eta bai landa zabalean ere, “belarri luze urduriko mando zuri-beltz baten gainean” egiten zituenean bere ibilaldiak, “airearen bihotzaren” bila; gizona bera mando gainean, utzi egiten zion horri mendialdeko bideetatik joaten, nekazariren batek gidatuta.

Aireak bezala, lurra ere badu bihotzik. Norbaitek esana duenez, gauza guztiek “dute bizidunik” beren baitan, eta argitu egiten dute arretaz, sinpatiaz eta jakinminez begiratzen diteena. Arreta handiz behatu behar dugu, behatu ere, “deabruaren ileak zenbatzeko” gauza izateraino, esan ohi denez; eta, serioago jarritz orain, Johann Baptist Metz teologoak deitu duen “begi irekien mistikaren” ariketa beharko luke egin benetako ikusleak. Horrela gertatzen da aberasgarria, eta gustagarria ere bai, mendian –eta gizarteko malkarretan– ibiltzea. Horrelaxe bizi izan dut nik neure esperientzia Arantzazura bidean gora.

Santutegirako errepidearen bazterretan ugariak dira basaloreak: otearen lore horiak ageri dira, samurrak, mulu arantzatsu eta ziztakariaren –bizitza bera den bezalakoaren– adarretan hazitakoak izan arren; eta kardoaren loreak ageri dira, trikua bezain latzak. Leunagoa da goroldioa, eta onberatasunez estaltzen ditu felpazko estalduraz harkaitz gogorak eta zuhaitz urtetsuen enbor zimurtuak.

Izadiari arreta jartzen dion edonork aurkitu ahal ditu etengabeko irakaspenak bertan; katekesi modukoa gerta dakioke hori, fedea argituriko begiez begiratzen dionari, edo eskola laiko ongi antolatua, ez-fededunari. Erljioa alde batera, umorez begiratu izan dio bestela euskaldunak Izadiari, baita bertako loreei ere. “*Digitalis purpurea*” lirainari kukupraka –“kuku-praka”– izen irrigarria diogu ipinia euskaldunok. Zalantzarik ez dut, Jainkoak, umore onaren eta irudimenaren zalea izanik, ontzat ematen duela izen bitxi hori bere Aingeruen Hizkuntzaren Zeruko Akademian. Bidean aurrera eginenez, konturatuta nago, era berean, errepidearen bazterretako sasi korapilatuetako astalarrosarekin ere –horrelaxe deitzen



baitute inguruotako nekazari euskaldunek, beren gatz eta piper alaiaz, gaztelaniaz “rosa de los asnos” deitu ohi dutena—.

Banindoan ni aurrera Thomas S. Eliot-ek “paperezko lastotxoz irentsitako filoso-fiak” deitzen dituen horrelako gogoetetan, lore artekoetan, murgilduta. Eta halako batean, goitik behera astindu ninduen astoren baten arrantza indartsu eta zakarrak; niri begira zegoen, nonbait, ondoko zelaitik. Oihartzun egin zuen arrantza kementsuak inguruko arroetako haitz eta haitzuloetan, eta nire inguruneko lurralde osoa soinuz bete zuen, sekulako orkestra bihurtuta.

Laburra izan zen arroetako musika ustekabea. Isildu eta lasaitu egin zen berriro lurraldea, hain hautsia eta asaldatua izan arren horren orografia; eta bakean jarraitu nuen neure ibilian; baina ezin izan dut ahaztu asto katedratiko hark emandako irakatsia: Arantzazuko harkaitzak eta arroak musikaz beteta daudela, alegia —Kreazioaren musika adierazi ezinaz—, nahikoa baita astoaren arrantza edota ekaitzaren ezkutuko danborren arrada, haiek egundoko kontzertuari ekiteko. Entzuteko belarririk duenak entzun beza.



Horregatik guztiagatik, Arantzazura igotzean, begiak argi eramateaz gain, entzumena ere irekita behar da eraman.

Gorputzaren kanpoko sentimenak bakarrik ez dira, ordea, nahikoa, errealitatearen osoa atzemateko. Horren dimentsiorik sakonenak, sinboloena adibidez, barneko sentimenek bakarrik adi ditzakete, irudimenak aurren-aurrenik.

Idatzita dago –eskerrik asko, Paul Ricoeur bihotzeko filosofo jaun horri!–, “izan daiteekena ikertzeko ezinbesteko tresna dela irudimena” eta “irudimen poetikoa dela sinboloaren agermoduetako bat”. Arantzazuko nahiz munduko beste edozein bazterretako haitz eta arroetan soinurik gabe oihartzun egiten duten Kosmosaren musika entzun ezina dela eta, aipatu gura izan ditut hemen filosofoaren bi esaldi horiek. Irudikatzeke musika da hori, sinbolikoa, baina beti adierazgarria...

Irakurleak nahiago badu, jo ahal dugu mistiko eta poetengana ere, delako musika arraro hori nolabait bere soinua jotzen ari dela egiaztatzeke –ez da hau, ordea, azalpen gehiagorik emateko unea–. San

Joan Gurutzekoa, poeta eta mistikoa aldi berean, “maitasunezko aireen txirulaz” mintzo zaigu, eta “bakardade ozenaz”, eta “musika isilaz”...

Berriro esan nahi dut, Arantzazura igotzean, belarriak ondo irekita joan behar dugula, begiak argi eramateaz gain. Erromesak berak probatzea dauka hori, isilik eta arima erne duelarik, hau da, Kosmosaren misterioan muturra ondo sartuta eginenez bere bidea. Harrigarria da gure mundu hau, bere bost sentimenez atzematen duenaz harantz ikertzen saiatzen denarentzat.

Alde batera utzirik, oraingoz, sinboloak, egokia da dastamena ere erne edukitzea eta erraz jatekoren bat aldean eramatea.


Gesaltzako soilgunean egin dut geldialdia, lurraldea lasaitu eta zabaltzen den hartantxe, “bizitzari adabakiren bat jostearren”, gaztelaniazko esaeran. Zuhaitzaren itzalpean eserita jan dut neure hamarretakoa: baserriko ogia xerratan, gazta-xerraren batzuekin, eta, horiek barrura bidaltzeko, ardo zurrutada batzuk, eguneroko ardoarenak; eta ondoren, bide bazterrean bildu ditudan masusta goxo-

goxoak, eta eskukada bat basaran, zapore bizkorgarri eta latzekoa. Zer hori baino hamarretako hoberik!

Berriro errepidean, ibilgailuen joanetorria handitu egin dela konturatu naiz. Inoiz ez zitzaidan bururatuko hainbeste jende erakar zezakeenik “basaeremu sakonean, bertan bizi-ezinekoan” eraikitako santutegiak.

Gesaltzatik aurrera aldakorragoa eta argiagoa da lurraldea, kolore biziagoak erakusten ditu, eta urruneko zeruertzean, Elgea mendi-katean, leunagoak dira gailurren soslaiaren uhin formako lerroak, erditutako behorrraren bizkarraren antzekoak, edota txirrista itxurakoak. Gailur haietantxe landatu dituzte –oso irizpide eztabaidagarriarekin, hori bai– haize-dorre erraldoi eta fantasiosoak, beren hegala aerodinamikoak zabalik; auskalo zein aingeru bihurrik edo deabru antiekologistak eragiten die horiei.

Arantzazuko lurralde honek agerian dituen irudi berri horiengatik agian, edo beharbada hamarretakoan jandako masustek eta ardoak utzi didaten zaporeondoak eraginda, argiagotu egin dira ni-



re begiok, eta gure Aita San Frantziskoren *Eguzkiaren Kantikak* itxuraldatu egiten du ingurune osoa. Ikusten ari naiz, ikusi ere, eguzkia ez dela ni inguratzen nauen astro distiratsua soilik, eta bai:

*messer lo frate sole,*  
 senide eguzkia ere,  
*Altissimu Onnipotente Bon Signore,*  
 Jainko Goi-goiko eta Onaren  
*porta significatione*  
 irudia dena.

(Geroago, santutegia bisitatzean, ikusi ahal izan dut harrituta, nola margotu zuen Nestor Basterretxeak *Frate Sole* hori kriptako bere paneletako batean: trazu handiz eta kolore bortitzez, ezpaletan zatitzear, eta San Frantzisko zauridunaren ondoan).

Santutegira hurbiltzen ari naizelarik, hauxe nabari dut: bide egite honetan nire bekoki izerditua freskatzen didan airea ez dela goialde hauek egurasten dituen haizea bakarrik, eta bai:

*frate vento*  
 senide haizea ere.  
*lo aere e nubilo e sereno e onne tempo*  
 aire, laino, oskarbi eta edozein eguraldiri

esanahi berria ematen diena.



Poz-pozik ohartu nahiz, era berean, Arantzazu auzoko nekazari jatorren belardiak eta soroak hauxe direla, hain zuzen:

*sora nostra matre terra,*  
gure senide ama lurra  
*la quale ne sostenta e governa*  
gu mantentzen eta gobernatzeko gaituena,  
*e produce diversi fructi*  
eta hainbat fruitu produzitzen dituenena,  
*con coloriti fiori ed erba.*  
baita lore koloretsuak eta belarra ere.

Zorionekoak dira Arantzazuko erroresak eta bertako fraideak, lurralde mirregarria baitute beren begien aurrean, irudiz ondo apaindutako liburua baitute eskura, beti irekia, idazki ederra; eta hori interpretatzeko badute, gainera, gida apartekoa ere, San Frantzisko Asiskoaren *Eguzkiaren* edo *Sorkarien Kantika*.

Neguan ere, Arantzazuko negu ilun eta gogor-gogorrean ere baliatu ahal dute gida hori. Orduantxe erakusten ditu *Kantikak* bere sekreturik ezkutukoena eta aberatsena. Negua diodanean, bakar-dadea esan gura dut, basamortu espiritu-ala, pobretasuna, nor bere baitan biltzea. Orduantxe gainditu ahal dugu errazenik, frantziskotar poema handia azaleko emo-

zio soilez irakurtzeko joera, inoiz gertatu ohi zaiguna; orduantxe dago deitua irakurlea, *Kantikak* iradokitzen duen gure mundu ederreko errealitate poetikoen barrenera jaistera. Ezaguna denez, bere espirituko negualdian konposatu zuen San Frantziskok Kantika hori, bere gorputzean estigmak –bost zauriak– hartuak zituelarik eta gaixo zegoela, itsutua eta oinazetan, ohatzean etzanda, gaueko ilunpean murgilduta, eguzkiak eta Krea-zio osoak beren distira galdua zutenean berarentzat. Bere espirituko ilunpe horretantxe argitara zuen Asisko santuak literatura unibertsalaren historiako poesiarik argitsuena.

Ezin dugu ahaztu datu hori. Horrela ulertu ahal dugu, nolatan den gauza *Kantika* hori, zor zaion sakontasunez irakurritz gero, Krea-zioaren funts ezkutuko eta misteriozkoak, horren sinbolorik adierazgarrienak –oraingoan Arantzazuko lurralde honenak– agertzeko, udan nahiz neguan.

San Frantziskoren begi poetiko eta espiritualki argituez ikusten duenak Arantzazuko lurralde hau, horrek aurkitu ahalko du errealitateak, errealitate orok bere

baitan duen “misterioa”, hark aurkitzea lortu izan zuen bezala, berak zuen santuaren umiltasunez eta poetaren jenialtasunez. Max Scheler filosofoak azpimarratu zuen San Frantziskoren sintesigaitasun handia, giza espirituaren barne-muina Kosmosaren “sokratuzkoarekin”, Gurutzea Eguzkiarekin, bateratzeko...

Kontuan izan behar dugu era berean, San Frantziskok bere *Kantikan* Izadiko elementuei egozten dizkien ezaugarriak –eguzkia “ederra eta distiratsua” da, izarrak “bitxi eta ederrak” dira, sua “alaia, sendoa eta indartsua” da, lurra “senide” da eta “ama” aldi berean–, ezaugarriok ez dituela santuak bere ikuspegi erlijozkotik bakarrik ateratzen, eta bai, nagusienik, bere poeta-senetik. Poeta izan zen Frantzisko, santu bihurtua, ez santua, poetarena egin zuena. Edertasuna estimatu zuen hark, berorren ederrean.

San Frantziskoren begiekin begiratu-ta, Arantzazuko lurraldeak bere barne-edertasuna erakusten du, gure ikusmen laburrak iristen duen ikus-eremuaz haraindian distiratsu dagoena.



## 7. ARANTZAZUKO LURRALDEA, BERTAKO ARTISTEN BEGIETAN

Artistek, behin eta berriro Arantzazura igoz, ederki jakin zuten inguruko lurraldearen bihotzari antzematen, eta santutegian irudikatu zuten gero hori, jenioen trebetasunez. Dohain berezia erakutsi zuten haiek “sumatu bai, baina ikusten ez dena” agerian ipintzen.

Lucio Muñoz pintoreak, adibidez, hasi Urrexolako Haitzetik eta santutegiraino-

ko bidean gora bistaratzen diren kareharrizko labarrak soseguz behatuz, berorien baitako mezu espirituala aurkitu zuen, eta basilikako aldare nagusiko erre-  
taula eskergan irudikatu, espresio-joko apartekoz.

Bereziki argia da Lucio Muñozen beraren lekukotza horri buruz. Arantzazuko komentuko artxiboetan jasoriko bere gutunetako batean adierazita utzi zuen, nola igo zen oinez eliza berria ikustera, artean egiteko zegoen erretaularen autorea aukeratzeko lehiaketa irekita, frantziskotarrek deiturikora, bere burua aurkeztu aurretik –ordurako eraikita zegoen eliza bera–.

“Amalia eta biok –dio berak gutunean–  
egun ikaragarri lainotsuan iritsi ginen.  
Oñatitik Arantzazura igoera iradokizun  
ugarikoa izan zen”.

Bidaia horretan ohartutakoaz zera dio berak:

“Nire buruhausteetako gehienak kon-  
ponduta geratu ziren, hainbesteko inda-  
rez, halako handitasunez mintzatzen da,  
mintzatu ere, inguru horretako lurraldea”.

(Hauxe adierazi nahi du: bere espresio-  
gaitasun pertsonalek eta eraikita aurkitu

zuen obra arkitektonikoak bazutela kide-tasunik). Eta beste hau gaineratu zuen:

“Izan ere, hain da harrigarri poetikoa, misteriotsua eta erlijiositate hain isilez eta sakonez betea han [lurralde hartan] bildurik dagoen mundua, non bertan behera ulertu nuen erabat egokitzen zitzaiola hori nire ohiko espresio-munduari”.

Hainbestearaino ukitu zuen Luzio Muñoz Arantzazuko lurraldearen esanahi erlijiozkoak, non gauza izan baitzen bere ideia agnostikoengatik –agnostiko aitortzen baitzuen bere burua– santutegiko proiektua aurrera eramaterakoan aurki zezakeen eragozpen oro gainditzeko. Honako printzipio honetan aurkitu zuen horretarako babesa, berak dioenez:

“Erliziozko sentimendua ez dagoela halabarrez inolako sineste edo dogmari lotuta”.

José Castro Arines, Luzio Muñozen pintura aztertua duen arte-kritikariak, ondo agerian ipinia du, pintore handiaren erretaulan Arantzazuko lurraldeak izan zuen eragina; honetara dio berak:

“Arantzazuko errealitatea bera, hots, dimentsio kosmikoa, ekarri du Luziok obra honetara”.



Jorje Oteitza eskultoreak, Arantzazuko beste artista handietako horrek ikusi zue-  
nean, nola zuen lortua Luziok santute-  
giaren inguruko lurraldea absidean sar-  
tzea, txundituta geratu zen, eta belauniko  
jarri aldarearen aurrean, eta oihuka esan  
zuen: "Apartekoa!" –¡Extraordinario!–.

Oteitza bera ez dabil Arantzazuko lu-  
rraldearen inspiraziotik at santutegiaren  
aurrealdeko bere eskulturak lantzean. Ho-  
netara idatzia du Isabel Monfortek, Aran-  
tzazuko arteari buruzko bere azterlanean:

"Horren konposizio osoa haitzean ber-  
tan zizelkatuta edo ikusi ahal dugu, har-  
kaitzetik irteten, higituta, biribilduta, belz-  
tuta, denboraren joanaren eta elementu at-  
mosferikoen korrosio-lanaren eraginez".

Eta Alberto Durerok pintore eta gra-  
batzaile alemaniarraren teoria ezaguna  
aipatzen du horri buruz:

"Izadiaren baitan dago artea, baina erau-  
zi egin behar da hori izaditik".

Eta hori azpimarraturik honela dio Isa-  
bel Monfortek:

"Bere irudietara eramanak ditu Jorje  
Oteitzak inguruneko Naturaren, Arantza-  
zuko lurralde basati eta malkartsuaren  
erreferentziak".

Arkitekturari dagokionez, Arantzazuko harkaitz tontorrak eta bertan sortzen diren elorriak –edo “arantzak”, hitz hau baitago Arantzazu izenaren sustraian–, harri diamante-puntadun bihurtu zituzten Luis Laorga eta Francisco Javier Sáenz de Oiza arkitektoek; eta beraiekin jaso zituzten kanpandorre bortitza eta santutegiaren aurrealdean, alboetan, goardia-rena egiten dauden bi dorreak. Gorago aipatua dugun Arantzazuko artearen aztertzaileak aitortzen duenez, arkitekto horiek, “alde batera utzita lehendik zetozkien kultur tabuak”, gai izan ziren, ingurune orografikoan errotuta dagoen “ikusi ezinaren eta betierekoaren distira eraikuntzako materialen azalean distirarazteko”.

Arantzazuko basilikarekin harreman estua izan du beste artista batek ere: Jabier Alvarez Eulate pintore frantziskotarrak. Jakinduria onez egokitu zien Arantzazuko argia basilikako liturgiaren eskakizunei, bertako gurutzaduran landuriko beirateen bidez. Arantzazuko atmosfera, egunen batzuetan izan ezik, ez da distira handikoa izaten, klima hezeak eta lurralde menditsuak apaldua baizik. Santutegia-



ren erlijiozko sinboloak nabarmentzeko inguruneko argi apal hori baliatu eta egokitu izana, eta basilika barruan norbere baitan biltzera eragiten digun argiztapen aproposa sortu izana: horra Eulateren meriturik handienetako bat bere beirate bikain horietan.

Gaingiroki eman ondoren orain arteko azalpenok, baieztatu ahal dugu, baieztatu, begiak irekita Arantzazuko lurraldea behatu duenak, ikusia duela santutegia ere, bertara iritsi aurretik, ederki asko asmatu baitzuten hori eraiki zuten artistek inguruneko lurraldearen espiritua ispilatzen bertan.





II

ARANTZAZU  
AZKEN 50 URTEOTAN



## 1. LEHEN ZIRRARA: ARTEA BEGIEN AURREAN

Bisitariari Arantzazuko santutegira iritsia dela erakusten dioten lehen seinaleak ez dira erlijiozkoak, guztiz sekularrak baino: bertan aparkaturiko ibilgailuak, hain zuzen. Auto-ilara handiak –Ameriketako “carros” deritzegu–, asma ahalako marka eta matrikula guztietakoak, sekulako autobus handiak, kolorez distiratsuak: ibilgailu multzo ugaria eta ikusgarria osatzen dute horiek denek, aparkaleku zabaletan egoki kokatuta.

Hain deigarria gertatzen denez auto pilaketa hori, berehala pentsarazten di-zu Oñatitik Arantzazurako errepidea he-mentxe amaitzen dela; eta halaxe da, izan. Hauxe ematen du horrek aditzera: Jendetza handien topagunea eta ospakizun jendetsuak egiteko lekua dela Arantzazu; bertara batzen direla eta bertan elkartzen fededun talde handiak santutegiko eliz-kizunetarako; edota hainbat lekutako eta sineste eta kultura ezberdinetako lagunak biltzen direla bertara, elkarrekin aztertze-ko garrantzi handiko gaiak.

Santutegiaren hurbiltasunak zirikatuta, aurrera noa pausoa azkarturik, egoki apar-katuriko ehundaka autoren artean. Laua da orain errepidea, eta erosoago noa espaloi zabaletik, eskubitara ikaragarritzko troka dudala. Iristen ari naiz irrikatzen dudan helmugara, neure gorosti-makilak marka-tzen didan konpasaren arabera, eta eutsi ezinezko urduritasunak kilikatuta.

Konturatua naiz, Urrexolako Haitzak markaturiko gogortasun hura ageri duela berriro hemengo parajeak, eta txundituta behatzen ditut amildegiok, eta begira nago nola altxatzen diren haitz zorrotz amorratuok troken beheko barrenetik go-

ra; kosmosaren Egile ikusi ezinaren bozeramaileak dirudite. Aldi berean neure ezkerretara aparkaturiko autoen markak ikuskatzen ari naiz; gure gaurko kulturaren, balio praktiko eta ukigarritz eraturako honen ezaugarri dira horiek.

Bi mundu bata bestetik hain aldendu horien tartetik noa santutegira hurbilduz; dantzan daramat neure bihotza leku pribilegiatura heltzen ari naizen esperantzaz; beharbada bertan aurkitu ahal izango dut zenbait erreferentzia, bizitza beste era batera ikusteko aukera eskainiko didana.

Basilikaren eta frantziskotar komentuen barrutian nago orain; lehen sinboloak ikusi ahal ditut, harrigarriak eta bortitzak, bakarleku honetan arteak sortu dituenak: kanpandorrea eta tenpluaren aurrealdea.

Kanpandorrea, latz, tente, berrogeita hamar bat metro gora; diamante-puntaren formako harri landu biluziz egina; zelatari zakarra dirudi, “geldi hor!” agintzen bisitariei, eta bertan behera geraraziz horiei. Francisco Javier de Oizak eta Luis Laorgak diseinatutako dorre gihartsu honek bertan lotuta, zur eta lur, uzten du

aurrez aurre begira jartzen zaiona, hain jotzen ditu bortizki horren gorputzeko sentimenak eta espirtua.

Erpin biziko harri latzez jasotako erai-kintzar honi begira, Arantzazuko Andre Mariaren elorriaren gorazarrea dela iruditzen zait, zuhaitz horren enbor gainean aurkitu baitzuen artzainak haren irudia XV. mendearen azken aldean. Elorria (edo arantza), alegia, harri puntazorrotzeko dorre bihurtua, arkitekto jenial bikainen asmakuntza ausartari esker. Badirudi honako mezu baikor hau aldarrikatzen diela horrek erromesei: Gaindi daitezkeela –gainditze-koak direla– giza bizitzako arantzak Jesu Kristoren gurutzeari esker, dorrearen buruan ipinita dagoen horri esker, alegia.


Jorje Oteitzak bere eskulturekin betirako ospetsu bihurtu zuen basilikaren fatxada interpretatzeko Bitoriano Gandiagaren itzala bilatu dut, eskultorearen adiskide mina bera, harekin elkarrizketa luzeak edukitakoa Arantzazun.

Neuk ere izan nuen Oteitza ezagutzeko aukerarik, baina bakanak izan ziren nire hartuemanak harekin, 1953.eko urte hartan Madrilén. Xabier Alvarez Eula-

terekin batera merienda arin bat izan genuen Oteitza eskultore handiarekin, honen emazteak eskainita, udaberriko arratsalde hartan: latako sardinak, soda galletak eta ardo arrunta. Baina Oteitzak ez zidan inoiz argitu zer adierazi nahi zuen Arantzazun egitekoak zituen eskultorekin. Gandiagak, ordea, eskura izan zituen euskal eskultorearen lan artistikoa interpretatzeko erremintak. Gandiagaren iritziz, santutegiko fatxadan “txintxaz eta mailuz” landutako eskulturek Ebanjelioko paradoxa itzel hau erakusten dute: Andre Mariak, bere Seme hildakoaren, bizitzaren eta esperantzaren Egilea denaren gorpua bere oinetan duela, gorantz begiratzen du frontisaren goialdean, estutasunez, erantzunen baten bila; eta aldi berean, fatxadaren frisoan imintzioka ari dira irudi erraldoi erraigabetuak –apostoluak?–, asaldatuta, eta sutsuki hizketan beren artean, gertakari sinestezin hura ikustean; eta horrela ernearazten dute sinismena:

Asaldatu egin ziren  
ezustekoak jota...  
Fedea hemen hasten da.

“Esperantza sortu zuena” olerki laburrean eman zuen Gandiagak interpretazio





hori; 2001ean bera hil ondoren aurkitu zuten haren beste hainbat idatzi argitaragabeen artean.

Bada bestelako irakurketarik ere, sekularragoa. Horren arabera, garai hartan Euskal Herriak bizi zuen biolentzia politikoak sorturiko oinaze eta gatazketan aurkitu zuen inspirazioa Jorje Oteitzak, bere Pietatea lantzeko eta frontisaren goialdean ipintzeko, Ama Doloretakoaren larritasunean baino gehiago. Interpretazio horri buruz hona nire iritzia: adeitsu izatea eta ausarta izatea kontrakoak ez diren bezala, gizatasunezkoak ez duela jainkotasunezkoa ukatzen. Dena dela, gehienetan eta berariaz Oteitzak emandako bere obraren interpretazioa erlijiozkoa izan da.

Antzeko irakaspen konkreturik, katekesiari dagokionik agian, aurkitu ahal dugu Arantzazuko artelanetan, Gandiagak basilikaren fatxadan aurkitu zuena bezalakorik; baina Gandiagarentzat ere dimentsio trszendenteagoa du benetan Oteitzaren arteak, irudiaren beraren esanahitik edo irakaspen kateketikotik harantz. Xabier Egañak Andre Mariaren kamarinaren inguruan margoturiko horma-

pinturak ere, ildo beretik, bi adierakoak dira. Isabel Monforte Arantzazuko artearen ikertzaileak honetara deskribatu zuen Egañaren pintura:

“Beren idealen alde borrokatzen diren jendeen gorazarrea da, eta mundu zuzenagoa eraikitzearen beren bizia galtzen duten guztien aldeko aitorpena”.

Nestor Basterretxeak basilikaren kriptan egindako pinturei dagokienez, berriz, autore berak du idatzia, “multzo enigmatikoa, hizkera *-críptico-* ilunekoa” osatzen dutela horiek.

Dena dela, Arantzazuko artea ezin da ulertu, enigmaren batzuk aireratzeko egindakotzat eta are gutxiago Erdi Aroko eliza erromaniko eta gotikoetan bezala katekesia eguneratzeko helburuaz landuakotzat. Arantzazuko artistek ez zuten jendea txunditzea bilatu ez eta dotrina-rik irakastea ere, neurriak eta koloreak, formak eta espazioak sortzea baino, santutegiaren inguruko lurraldearen esanahia erakutsiz, eta horretaz “haraindikoa” ikusten lagunduz jendeari.

Arantzazuko basilika “erlijiozko arkiteturaren gaurko adierazpide bikaina”, horixe dela esan izan dute; Van Gog


pintorearen honako intuizio honi erantzuten dio horrek:

“Aski dugu edozein gertakariren sakena sartzea, barrenean Jainkoa aurkitzeko”.

Giza errealitatearen nahiz materialaren, guztiaren sakoneko misterio horixe argitu nahi izan dute Arantzazuko artistek. Arte bihurtu dute ingurunea. Horra horien originaltasunaren handia.

Beste era batera esanda: Arantzazuko artea ez da geratzen eskola estetiko jakin baten formen mugen barruan —ederrak izanik ere horiek—; nahiago izan du Arantzazukoak, jakineko estiloak gaindituz, santutegiaren inguruko lurraldearen esanahia eta ederra azaldu, ahal denik eta manipulaziorik txikiena eginez; eta horrela lortu du izadiaren irudi sublimatua izatea.

Jakin dugunez, Jorje Oteitzak, basilikako fatxada hau lantzean, kendu egin zituen lehenagoko proiektuan ageri ziren erliebeak, goialdeko Pietatearen eta behealdeko apostoluen frisoaren arteko espazioa bete behar zutenak. Berrehun eta berrogeita hamar metro koadroko harri landuzko eremu zabal hori garbi eta bi-



luz uztean, hauxe adierazi omen zuen Oteitzak bere ateraldi jenial haietako batean: “ezer gabe” ez, “ezerezarekin” geratua zela fatxada.

Adierazpen hain esanahitsua gogoan izanik, aitortu behar dugu, aitortu, materiak bere baitan duen ederra agertzen duela Arantzazuko arteak. Hau da, Arantzazuko artistek, Ama Izadiaren ikasle harritu eta zintzo bihurtuta, hauxe egin nahi izan dute: Kosmosaren biblia idazteko Kreatzaileak baliaturiko alfabeto ezkutukoa deszifratu eta ama eta senide Lurraren apaltasuna artearen kategoriara jaso. Basilika barruan nabari da ongien arau hain jakintsu eta hain ulerterraz hori, Arantzazuko artistek ederki bete izan dutena. Zorionez.

Arantzazuko artea, bere soiltasun estetiko horrekin, ez da jendeari erakustekoa, museoetakoa den bezala, erromesari modu zabal eta egokian laguntzeko egina baino; “iritsiezina” den Haren argi misteriotsua sumatu ahal du erromesak arte horretan, santutegira igotzean inguruko lurraldea behatuz sumatua duen bezala. Erromesari mintzatzen zaio arte hori, beraren mintzaira berean. Behin batean

Jorje Oteitzak aitortu zuenez, zizelkatzen ari zen harrizko irudiek hitz egiten omen zioten berari. Lucio Muñoz, Paul Klee pintore suitzarraren jarraitzaileak, zera azaldu zuen bere aldetik: santutegiko erretaula pintatzeak barne-aldakuntza sakona eragin ziola berari, eta Andre Mariarekin harreman espiritual bihotzekoa edukiarazi ziola, eta bere burua euskaldunago sentiarazi ere egin ziola.

Horregatik, Arantzazuko erromes gehienek santutegiko artelanen aurrean nola egin ohi duten, horrelaxe isilik eta astiro horiek kontenplatzea da garrantzizkoena, horien interpretazio arrazionala lortzen saiatu gabe. Horrelaxe egin dut nik neuk. So eta so egon naiz luzaroan elizaren harri antzaldatuzko aurrealde egundoko horri begira; ikusle amorratuaren ikusminez behatu dut, santutegira igotzean etorri naizen errepidea edertzen duen inguruko paisaia ikuskatu dudana bezalaxe. Zerbait banaezina osatzen dute santutegiak eta inguruko lurraldeak Arantzazun.

Santutegiko arteari begira kolpatu nauten lehen ukituei buruzkoak luze esan eta berresan ondoren, ohartxo hau geratu zait egiteko, neure kolkoan: Nire iritziz, san-

tutegiak nabari duen itxura ilun, soil horrexek erakusten duela, nola duen baitaratu eta adierazi Arantzazuko arteak, Euskal Herriak bere probaldi latzetan tinkotasunez atxiki izan duen sendotasun hura.

Honetara idatzi zuen Friedrich Nietzsche filosofoak:

“Egiaren aurrean ez hiltzeko, horretarako dugu artea”.

Nire adiskideetako batek jaulki zidan behin batean esaldi hori Kariben, elkarrekin pina-zuku gozo-gozoa eta hotz-hotza zurruputzen ari ginela. Zurrupadetako batean irentsi nuela uste dut pentsalari alemaniarraren ateraldia; eta, ez dakit zein bide arrarotatik, neure subkontzientean kokatuta geratu zitzaidan. Eta gaur, Arantzazu honetan, oroimenaren ganbarara igo zait Nietzscheren sakoneko aforismo hura. Euskal Herriaren egoera konponbideratzeko bide bakarra ez da, ez, artea, jakina; baina egia da, bestalde, oso ondo erakusten dituela Arantzazuk Euskal Herriaren arazo mingarriak, eta lagundu egiten digula etsipenez ez hiltzen, geure arazoei aurre egin gura ez eta. Nietzschek erregutu dezala gure alde, santua ez bazen izan ere inola.

Arantzazuko arteari buruz gogoetan murgilduta, bakarrik geratua naiz, atzeratuta, sor eta gor, elizarako eskailera zabalaren erdian. Auto txikitan edo autobusetan nire aurretik iritsi diren erromes guztiak sartuak dira garaiz basilikara. Haietako bati, arnasa hartzera kanpora irten denari, galdetu diot, ea garaiz ote nabilen artean meza entzuteko.

— Inoiz ez da berandu elizara sartzeko —erantzun dit—. Sartu barrura, jauna.

Neure makila euskarri dudala, azken mailak jaitsi, eta Eduardo Txillidak landuriko burdinazko ateak zeharkatu ditut. (Mirespenez eta begirunez zeharkatze-koak dira ate horiek, artista bikainak lerro geometrikoz landuak).

Barrura sartuta, basilikaren gurutzaduraren txoko batean eseri naiz. Mukuru beteta dago eliza. Inor ez da mugitzen batzar jendetsuan. Adi-adi daude denak aldare aldera begira-begira; horren inguruan daude mezaemaileak zuriz jantzita.

Argi apal eta iragaziak argituriko tenpluaren barruti egundokoan ez da zutabe bat bakarrik ere ageri. Ez dago irudi zizelkaturik ez pintaturik, zure begien arre-

ta sakabanatuko dizunik. Harri zakar eta leundu gabekoz daude jasota hormak, laztabin-zuloen markak eta harmailuek eragindako zauriak agerian dituztela. Elizaren aurrealdean, barrenean, aldare nagusiko erretaula; seiehun metro kuadro ditu, jakin ahal izan dudanez; Arantzazuko kareharrizko haitz-labarren forma abstraktuak ageri dira irudikatuta bertan, haizkoraz tailaturiko eta lur-kolorez nahiz kolore argiz margoturiko zurean. Erretaularen erdian, Andre Mariaren kamarina ageri da, nabarmendu gabe, ordea, batere apaingarririk ez. Elizaren sabaian ez dago habarik agirian, ez dago arkitrabe edergarririk. Apaindurarik gabeko egurrez dago estalia, elizaren atzealdeko goiko bi koruak bezala. Zurezkoak dira, era berean, zur soilezkoak, koru-alboetako sare-hesiak eta elizaren zorua.

Soiltasunezko ingurune zabal honetan, halako bake-giro bare eta barnekoia erazten du sabaiaren azpian irekitako leiho-lerro bietatik eta erretaula argitzen duen absidearen gainaldeko leihate zabaletik iragazitako argi zenitalak. Baina batez ere Xabier Eulateren diseinu erdi-abstraktuzko beirateek, gurutzaduraren bi alde-





etan arrosa-leiho irregular moduan irekitakoek, horiexek alaitzen dute tenpluko barruti serioa, eta antzaldatzen espiritualki, beren kolore urdinxkaz. Vassily Kandinsky pintore errusiarrak, Paul Klee-ren adiskideak, zuzen ohartarazi gintuen “infinitorantz erakartzen duela jendea kolore urdinak”.

Aurrealdeko erretaularen erdian bada puntu bat, txikia, basilikaren espazio osoa bateratzen duena eta bertara bildutako jendearen begiradak erakartzen dituen bere argitasunarekin: Andre Mariaren irudia da, Jesus haurra altzoan duela. Puntu horretara dago dena zuzendua eta ordenatua; hala ere, horrek ez dio inoiz itzalik egiten, berorren oinetan, presbiterioan, burutzen dituzten ospakizun liturgikoetako misterioen distirari.

Badirudi Kanako ezteietan esandako hitzak errepikatzen dituela hemen ere Andre Mariak, Jesusi begira:

“Egin berak esaten dizuena”.



## 2. HAZTEGIKO AMUARRAINA, EDO EKOLOGIAREN MUGAK

Elizatik irtetean, barrenak kili-kili egi-  
ten didala nabari dut. Gesaltzako hama-  
rretakoa ez dut nonbait nahikoa izan,  
Arantzazura igotzeak eta santutegiaren  
kanpoalde eta barnealdeari mila begiz so  
eta so jarduteak eskatu didaten neke han-  
ditxoan neure gorputzari eutsi ahal iza-  
teko. Ez dut gogaitu nahi komentuko jan-  
gelako anaia arduraduna, honezkero ondo  
garbitua eta txukundua edukiko duelako  
fraideen ontziteria; beraz, inguruko ja-

tetxeren batean bazkaltzea erabaki dut. Ateak zabalik aurkitu dut zorionez horietako bat; baina ez dut horren izena emango, eskatu edo ordaindu gabe inori publizitatea egitea desegokia baita egilearentzat berarentzat.

Jatun bakarrarentzako mahaia seinalatu didate: txikia, garbia, jantokiko txokotako batean, lorez jantzitako leihoak argitua. Kristau gutxik izan ohi du begiratoriki loretsuan bazkaltzeko aukera.

Aurrenik katilu bat salda: ondo gozatu dago, eta neure gorputza bizkortzeko eta neure arima alaitzeko balio dit; ondoren amuarraina eskatu dut, arrarparrilan errea: handi samarra da, puntu-puntu dago egina, zapoetsua dago, baina ez da Arantzazukoa. Nahiago izango nukeen jatetxeko jabeak berak harrapatua izatea, neu nagoen ostatu honen beraren oinoinetan, harkaitz eta zuhaixken artean doan errekako ur mehe eta hotzetan harrapatua. Jainkoak daki nongo haztegitatik etorria ote den jaten ari naizen amuarrain hau, pentsakor eta halako desilusioz jaten ere. Min ematen dit ikusteak ekologiaren eskubideak ez dituztela errespetatzen, ezta goi-mendiko jatetxeetan ere.

Gauza bertsua gertatu zait postretzat aukeratu dudan gatzatuarekin ere. Klasi-koa du Euskal Herriak bere gatzatua edo mamia; baina niri zerbitzatu didaten hau ez da, ezin daiteke izan, Urbiako artzainek arabasoengandik datorkien jakituriaz egi-ten dutena, aspalditxo joana baita uda-berria. Munduko edozein bazterretan eta urteko edozein sasoitán egina izan daiteke mahairatu didaten gatzatu hau, baina ez mendi hauetan ez bestelako menditan egindakoa.

Bazkari arin hau amaitzeko, kamamila, barrena baretu eta kontzientzia lasaitzen duen belar-ur mirarizko hori; baina kama-mila ere ez da Urbiakoa ezta inguruko mendiotakoa ere, dendan saltzen dituzten marka horietakoa baizik. Bestelakoa izan zen Migel Unamunok –zorionekoa bera!– santutegi honetara egin zuen aipaturiko bisitan hartu zuena. Urbiako zelaian bil-dutako kamamila omen zen hura; eta, idazle handiak berak dioenez, bera eta bere txangokideak Aizkorriren gailurreraino igotzera bultzatu zituen, besterik gabe, hain zen kalitate handikoa.

“Amaneció una mañana espléndida  
–idatzi zuen Unamunok– pura, lavada y,

después de tomar manzanilla y despedirnos de la pastora, emprendimos la ascensión a la cabeza del Aitzgorri”.

Barrualdea suspertuta atera naiz jate-txetik, baina neure antzinako jaiotetxeko garaien minarekin nolabait, orduko bizi-modua hobeto egokitzen zaiolako gaur egun ekologia deitzen dugunari.

Arantza horrexek dit min egiten ostatatutik irtetean, seguruenik Arantzazura igotzean senidetuta geratu naizelako mendiarekin eta errekarrekin, zuhaitzarekin eta harkaitzarekin, hau da, munduan nagusi diren indar garbiekin. Landa-lurretan ari da eske indartsuen ekologia, bere eskubideak errespetatzea galdatuz.

Hemendik urrun hazitako amuarraina neure barruan egosten ari naizelarik, gure amak kontaturiko pasadizo hura datorkit gogora, Arantzazu honetan bertan gertatua. Gure ama—Jainkoak bere aintzan izan dezala— santutegiko ostatuan jardun zen zerbitzatzen hilabete batzuetan, ezkondu aurretik. Behin batean, Arantzazu auzoko baserrietako batera gonbidatu zuten meriendatzera, lankideekin batera. Hura bai merienda ekologikoa: katilu bat mami, zuri-zuria, baserriko artzainak bere ardien

esneaz egina, eta gerezi gorriak, etxe-ko baratzean bilduak eta etxean bertan egindako zumitzezko otarretxoan mahairatuak. Gure amak ez zuen inoiz ahaztu kolore hain biziko eta zapore hain naturaleko merienda hura.

Gizabidetzat daukagun kulturak ez litzuke galdu behar jatorrizko balio modu horiek. Ulertzekoa da, hala ere –zentzu onak horixe eskatzen baitu–, ezinezkoa dela azken muturreraino eramatea garbizaletasun ekologikoa, batez ere eguneroko bizitzako eskuarteko arazoetan. Globalizazio garai honetan utopia hutsa litzateke hori. Amuarrainak direla eta, adibidez, onartu beharrekoa izango da haztegiakoak izatea Arantzazun eskaintzen dituztenak, santutegiaren oinetan doan erreka urritu horretan alerik ere ez baita biziko agian; eta, beraz, eskerrak eman beharrean naiz azken batean gaur mahairatu didaten haztegiako amuarrain ederragatik.

Ekologiak baditu bere mugak, normalean ulertu ohi dugun moduan ulertuta, baina beharrezkoa da hitzaren muga horiek zabaltzea. Horrexetaz mintzatu zen maisuki Joaquín Araujo zientzialaria duela hiru urte inguru Arantzazun, “ekolo-

gista murriztaileei” eraso eginez; eta horrekin batera mintzatu zen Leonardo Boff teologo brasildarra ere. Biek ala biek azpimarratu zuten “arrazoimen sentikorren” eskubideak defenditu beharra, gaurko ekonomia gidatzen duen arrazoi instrumental eta utilitarioaren aurrean; eta Arnold J. Toynbee historialari ingelesak emandako aholkua gogoratu zuten horri buruz: geure zibilizazioa alferrik galdu nahi ez badugu, kontu larria dugula San Frantzisko Asiskoaren, ekologisten zaindariaren, sentiberatasuna geure jokabideztat hartzea.

Are urrunago joan zen Leonardo Boff, Arantzazuko lurraldeak liluratuta. Teologia ezin daitekeela ekologiatik bereizi, gogorarazi zigun; osoriko etika bihurtu behar duela horrek, gizon-emakumeak ez ezik, bizidunak oro har bere baitan hartuko dituen, familia bakarra osatzen dugulako denok batean, eta Unibertso osoa Jainkoaren sakramentua delako. Eta profetarena eginez, komunitate unibertsalak Ama Lurrarekin ituna sinatu behar duela ohartarazi zigun.

“Basaeremua, sakona eta bertan bizi-zinekoa” omen zen Arantzazu hau barru-

ti bereziki ekologikoa da, bertan amaitzen baita errepidea bertako auto eta autobus eta guzti, eta bertan hasten Jainkoaren eskuetatik irtendako mundua, bere horretan gordea, giza eskuak oraindik instrumentalizatu gabea. Mundu honetako mendi gainera hazten da kamamila usain ederrekoa eta horko sakan sakonen eta ezkutuenetan bizi dira azken amuarrainak, haztegiatiko kartzelatik kanpo. San Frantziskok zain ditzala!







### 3. "BAKETIK", GATAZKAK SAKONETIK LANTZEKO TREBAKUNTZA

Ekumenikoa, edo gutxienez periodistikoa, gertatzen da gaur egun, sotana luzez jantzita monako budistak, aiatolah-ak eta ulemak besterik ikusten ez ditugun garai honetan, fraide bat ikustea, gaztaina koloreko bere abituarekin, kordoi zuria gerrian eta sandaliak oinetan; horrelako batekin egin dut, hain zuzen, topo Arantzazuko komentuko atariko arkupean. Kariben ez gara, ez, fraideok galtza motxe-

tan ibiltzen, baina ez dugu ahaztu, hala ere, monakoa ez duela abituak egiten. Dena dela, Arantzazuko bakardade hauetan egoki ematen du fraideak fraide jantzita.

Bereganatzen ikusi nauenean ni, mauka-hutsik, neure makilak lagunduta eta zangoak kolokan nonbait, irribarrez begiratu dit nire Ordena bereko anaia eta aspaldi Amerikako misioetan lagun izandako honek, keinu erdi ironikoz erdi anai-tasunekoz.

— Kaixo, aspaldiko! Ez zindudan inoiz ikusi Karibe hartan zure zahar itxura horrekin eta erdi sekulartua, zeure txapel eta guzti eta mauka-hutsik.

— Nik neuk ere —erantzun diot— abitua eta sandaliak jazten nituen Vatikanoko II. Kontzilioaren aurreko urteetan. Ez al duzu gogoratzen? Nire gorputz itxurari dagokionez, berriz, zahartua ikusten nauzu nonbait, baina Oñatitik honaino igo ahal izan naiz oinez, neure makila be-deinkatu honen laguntzaz. Zer nahi duzu gehiago?

Karibeko nire antzinako lagunak hun-  
kituta besarkatu nau. Eta hasierako esa-  
tekoak esanda, galdera hau jarri dit:

— Ikusi al dituzu han goian, Frantziskotar Seminarioa zegoen leku hartan jasotzen ari diren eraikin berriak?

— Ez; bai zera.

— Begira, hemendik bertatik, porlanezko kubo hain modernista horiei, hormigoia-agerian egindako kaxoi eder horiei, hain ederki delineatuta, soslai kontrajarritan hain egoki eratuta. “Gandiaga Topagunea” dute izena eraikinok. Alonso del Val arkitekto iruindarraren obra da. Begira xenda eta pasealeku horiei ere: eraikinetarako bidearena egiteaz gain, puntu aproposak dira inguruan zabaltzen den sekulako paisaia harrigarriaz gozatzeko. Multzo arkitektoniko berri-kutsuko hori ikustera itzuliren bat egiteko gogorik baldin baduzu, atseginez lagunduko zaitut.

— Eskerrik asko!

Lasai-lasai lehen eskailerak igotzen ditugun bitartean, zera argitu nahi izan dit nire gidari bihotz onekoak: ikustera goazen eraikinen arkitektura santutegiarenarekin alderatuta hain ezberdina baldin bada, bi egituren helburu ezberdinak narmentzearren izan dela. Arantzazu ez dela honezkero basilika eta komentua

bakarrik. Diseinuaren nahiz erabileraren aldetik –jarraitu du berak– ekintza zibil eta sekularretarako asmatuta daude erai-kin berriok, basilikak dituen erabilera erlijiozkoen bestelakoetarako, alegia. Eraikinok baliatuko dituzte, era berean, erromesen, mendizaleen eta turisten atsendenleku eta babesleku ere. Aterpe eta begiraleku dira horiek; baina batez ere ikasgelak eta hitzaldi eta batzarretarako aretoak daude bertan.

Gorputz bat baino gehiago dute erai-kinok, eskailera moduan jasota, orubearen aldapa biziak hala eskaturik. Barrura sartu orduko halako harrotasun moduko batez ohararazi nau nire *cicerone* abitudun eta kordoidunak:

— Begira zein zabal eta erosoak diren hemengo lekuok, gustu onez apainduak; eta altzariak eta ikus-entzunezko tresneria ere gaur eguneko eskakizunen araberrakoa dira. Ikastaroak eta hitzaldiak ematen dituzte kulturune honetan, gatazka politiko nahiz sozialen konponbiderako etikak eta elkarrizketak duten garrantziaz, ekologiaz, ekumenismoaz... “Baketik” fundazioak egiten du lana hemen; frantziskotarra da inspirazioz hori, baina irizpide anitz

eta ez-konfesionalaz dihardu. Tribuna beretik jardun izan dira agnostikoak zein teologoak, politikariak nahiz psikologia sozialeko adituak. Lehen esana dizudanez, “Gandiaga Topagunea” du izena etxe honek, Bitoriano Gandiaga Arantzazuko poeta handiaren oroitzapenetan.

Eraikin moderno honetatik irtetean, azalpen hauxe gaineratu dit nire gidariak: Arantzazuko frantziskotarrek, aurrera daramatzaten beren jarduerokin hauxe erakutsi nahi dutela: Elizaren gaurko bide berriek kristautasun ireki eta gizabidezkoaren araberakoak behar dutela izan.

Orain arte isilik irauin dut zuhurtasunez nire lagunaren sermoia entzuten; orain, berriz, neuk ekin diot, neure alea ipintze aldera, geure ikuspegiak argiagotzeko asmoz.

— Gaizki ulertu ez badut –iradoki diot nik–, hauxe esan nahi duzu zuk: mundu honetako balioek beren kontsistentzia, beraiena, dutela –eta behar dutela eduki–, eta zuek, santutegiko erlijiosook, saiatu egiten zaretela tenplua inorentzat tranpa bihur ez dadin, alienazio-tranpa alegia; eta erromesak ere arrisku horretatik al-



dendu nahi dituzuela, uste izan ez dezaten, behin aldare aurrean Jainkoarekin eta norberaren kontzientziarekin bakeak egin eta gero, bestelako guztiek —arazo sozialek, adibidez— ez dutela garrantzirik beraientzat, edota, kontuan hartzekoak izatekotan ere, ez daukatela zerikusirik etikarekin eta Jainkoarekin. Dirudienez, “Baketik” ekimenaren berria eta meritua da, horren sustatzaileek ikusi izana, gizon-emakumeen sakonetik landu behar dela errealitate soziala; eta sakontasun horretatik pizten badira duintasuna eta fedea, ez dagoela ahazterik, jainkozko fedea ez dela ezer giza duintasunik gabe.

— Horixe da kontua —baieztatu dit nire gidariak.

— O. K., Ameriketan esan ohi dugunez. Baina aitortu behar dizut, nire buruko zokoguneetan dantzan darabildala halako itzal modukoren bat. Delako etika hori, politikari egokituta, ez ote da funtsean klerikalismoaren helburu erdi ezkuturen bat izango, berriro ere erlijioaren eskutik eramateko gizartea?

Airean oratu dio nire *ciceroneak* nire zalantzari, eta argitzen saiatu zait, gartsuki saiatu ere.

— Begira —azaldu dit—, ez dago inolako zientziarik, inolako giza jardunik, guztiz independentea denik; baina horietako bakoitzak ditu bere legeak eta bere barrutia, errespetatu beharrekoak. Politikaren alorrekoetan, adibidez, nahitaez giza duintasunaren printzipioak daude jokoan; eta horregatik, elkarrizketa da metodo zuzen eta onargarri bakarra, ez teologoen eta politologoaren artean bakarrik, eta bai politikaren esparruan diharduten aukera ezberdinen aldekoen beraien artean ere —eta agintedunen artean, jakina—. Beste era batera esanda, ideiak eta metodoak ez dira tresna bihurtzekoak, are gutxiago norberaren nahierara erabiltzekoak; “kaleitsuak” edo blokeoak gainditu egin behar dira, adostasun eraikitzailetara iritsi ahal izateko, esku artean ditugun auzien “ilunguneetan” edota interes aitorrezinengatik mahaigaineratu gabe geratzen diren arazo bihurrienetan ez geldituz kateatuta. Nahitaezkoa da elkarrizketa, tolesgabea eta gordina, gizarte bizitzaren sareetan sortu ohi diren korapiloak askatzeko; hortik ateratako ondorioen arabera jokatzekotan, beti ere, ondorengo egiteetan.

— Katedraduna ematen duzu zeure hitzotan.

— Zagoz oraindik piska batean eta entzun, konklusioa etortzekoa da eta. El-karrizketaren bide horretan nahi du “Baketik” ekimenak bere laguntza eman; horren zuzendaria ez da fraidea, sekularra da, esperientzia politikoa duena. Jonan Fernandez du izena. Adierazgarria da ekimena bideratzean argitaratu zuen liburuaren titulua: *Ser humano en los conflictos* –Gizabidez jokatu gatazketan–. Hobeto argitzen du oraindik horren azpitu-tuluak Jonanek Arantzazun zuzentzen duen erakundearen helburua: “Reflexión ética tras una vivencia directa en el conflicto vasco” –Euskal gatazkaren barruan izandako bizipen zuzenekoaren ondorengo gogoeta etikoa, alegia–.

— Neronek galdetu diot orduan neure *cicerone* argitsuari: Eta politikaren alorrean bakarrik eskaintzen al du “Baketik” horrek bere laguntza?

— Ez, zabalagoa du bere alorra. Gizartean bakteze-sare zabala ehuntzea du bere helburua, gatazka politikoez gain familiakoak, ekonomikoak eta arrazen artekoak gainditze aldera, horrela gizon-emakumeen duintasunean oinarritutako bake-kultura egiazkoa lora dadin, alderdi



horiek denak bateratuko dituen. Eskola izan nahi du Arantzazuk, bakearen eta askapenaren tresna konplexuak eragin-kortasunez erabiltzen jakingo duten eta horiez baliatzeko prest egongo diren gizon-emakumeak hezitzeko bertan. Eta hori dena mundu zabalari begira, ahal den neurrian. Ildo honetatik zirikagarria izan da “Bakerako Heziketaren Nazioarteko Kongresua”, 2007ko uztailean hemen egina, eta “Baketik”-ek eta honen antzeko erakundea den *Teachers College* izenekoak (New Yorkeko Columbia Unibertsitatekoak) antolatua; hogeita hamar herrialdetako ordezkariak hartu zuten horretan parte. Horrelako kongresuez gain, ikastaroak eman ohi dituzte Gandiaga Topagunean, familia barruko nahiz gizarteko baketze-ari buruzkoak.

— Erliziozkoari lotua al dago ekimen hori?

— Ez da erlijiozkoa ekimena; laikoa eta akonfesionala da, lehen esan dizudanez. Inolako klerikalismo susmorik gabeko lagunak daude horretan sartuta, hala nola, Jose Saramago nobelista.

— “Arantzazu berria” aipatu izan dute. Izatez, eta 50 urte Ameriketara eman

ondoren, berria gertatu zait Arantzazu bere osoan. Arantzazu Berria: horixe da niretzat Arantzazu hau.

— Fraideok ez gatoz guztiok bat horrelako izendapenetan; baina denok gaudere ondo jabetuta beste honetaz: gauzatze bidean daudela oraindik gure proiektu berritzaileok. Eta etorkizunaren edo Arantzazu berrituaren oinarriak ipintzerakoan gidatuko gaituen irizpidean ere bat gatoz denok, hots, bateratu egin behar direla: tradizioa eta modernotasuna, Arantzazuren iragan historikoarekin leial izatea eta gure garai honetan gero eta bizkorrago datozen kultur aldaketei irekita egotea; esan nahi dut, bilaketari eta bidea egiteari, fedeari eta kulturari egon behar dugula adi aldi berean, Arantzazu hau benetan jendearentzako topagune eta harreragune izateko modua bilatuz, eratuz eta sendotuz: fededunentzat nahiz fedegabeentzat, eta bereziki, fedetik nahiz fedegabeziatik, beren baitatik harantzagoko edo sakonagoko zerbaiten bila ari diren lagunentzat.

— “Baketik” fundazioaz gain, abiatuta dagoen bestelako ekimenik aipatzeko modurik bai?

— Berrikuntza bide honetan abian diren eta gutxi-asko eraginkor diharduten beste ekimen hauek izendatu ahal dizkituz: “Asis topagunea”, bere gorabehera eta guzti lanean ari dena, jendeentzako elkargunea, bilgunea eta otoizlekua eskainiz; “Axolaz”, bere lehen urratsak egiten ari dena, norberaren arazo psikologiko edo erlijiozkoetan laguntza eske datozenei laguntasun pertsonalizatua eskaintzen; “Tau” fundazioa, Hirugarren Munduarentzako elkartasun ekimenetan diharduena; “Artzain Mundua” fundazioa, artzantzaren alorreko ikerkuntza eta eragintza helburu dituen.

— Entzuna dut, badituzuela Izadiari dagozkion proiekturen batzuk ere, ez dakit oraindik asmotan bakarrik ala dagoeneko bideratuak.

— Gure asmoen oinarrian dauden hiru dimentsio osagarrietako bat da, noski, Izadiarena; hona hirurak: Natura (Izadia), Kultura eta Espiritualitatea. Naturgintza proiektuak hainbat ekimen ditu aurrera eramatekoak: “Parketxea”, Aizkorriko parke naturalari begira ingurune materialaren, lurraren, lurralde honen esanahia irakurtzen irakasteko; “Iturrigorri”

proiektua, Arantzazuko paraje adierazgarri horretako pagadia baso-eskola esperimental bihurtuko duena; edota “Zidorzaletasuna” proiektua, mendi hauetako bideak seinaleztatuko lituzkeena, besteak beste, Izadia errespetatzen eta maitatzen eta horren esanahia sakontzen lagunduko duen turismoa bultzatze aldera.

— Ez zarete lan makaletan sartuak, alajaina, hainbeste ekimenekin.

— Halaxe da, bai, baina merezi du gure herriari, gizarteari, egiazko zerbitzurik benetan eskainiko dion zerbaitetan saiatzeak. Aipaturiko proiektuok eta orain arte aipatu gabeko Gandiaga II-ko “Erakusketaren eremuarena” eta “Kultur sorkuntzaren, ekoizpenaren eta zabalkundearen babes-gunearena”, guztiok gauzatzea eta horiei eustea hainbat eragileren menpe daude: hala nola, arazo ekonomikoa, arduradun egokiak bilatzea, eta proiektuotako gehienek eskatzen duten erakunde bat baino gehiagoren arteko kudeakuntza bateratua bideratzea; hori dena lortu eta iraunkortzea ez da gauza erraza.

— Proiektu horiek denek ez al dute arriskurik, Santutegia bere jatorrizko izaeratik aldenaraztekoa, alegia?

— Fede bizitza eta espiritualitatea sustatzea, eta giza bizitzaren zentzu sakonagoa eta pozgarriagoa bilatzen duten jende xumeei harrera egitea eta geure laguntza eskaintzea: hori dago gure proiektuaren oinarrian. Nire iritziz, alor espiritualaren eta gure munduaren giza errealitate premiakoenen arteko lotura egitea —gaurkotasunari begira beti ere— gure Santutegiaren tradizioaren barruan dago; eta gaurko premia horietan ez dira baztertzekoak, jakina, kulturaren, bizitzaren teknifikazioaren eta politikaren alorreko sufrimenduak eta gabetasunak

— Ederki! Gizon-emakumeen arteko errespetuan oinarrituriko kultura: gai horri eta beste hainbat gairi buruz jarraituko dugu hitz egiten, baina ez hemen, Gandiaga Topagunerako bide honetan; erromesak eta mendizaleak, bisitariak eta turistak ari baitira hemen gora eta behera, ikusten duzunez. Komentuko lasaitasunean jarraituko dugu geure elkarritzeta, nik neure aldetik “Misterioa” izeneko eraikinera, antzinako Santokristo ermitaren azpian jaso duten horretara, neure bisita egin ondoren, gogo bizia baitut hori ikustatzeko. Ez ahaztu gero

dutenak, “bakean sufritzen” dutenak, bekatua gainditzen dutenak, “apaltasun handiz” Jainkoa zerbitzitzen dutenak go-raipatzen ditu ahapaldi horietan gure santuak; ez eguzkia edo haizea. Ez du Krea-zioaren ederra kantatzen, justizia, etsaien adiskidetzea eta gizartean zabaldu beharreko bakea baizik.



#### 4. INDIANOEN LITANIA: ARANTZAZU MUNDU ZABALEAN

Arantzazuko panorama osoa hartzen duen antzinako Santokristo ermitaren azpialdean eraikia dute txoko bat, “Misterioa” izen deigarria ipini diotena. Kanpoko aldetik eta arkitekturari begiratuta, joko ona egiten du kultur ekintzetarako moldaturiko Gandiaga Topagunearekin; barruan, berriz, espazio txiki bat besterik ez da, inolako apaingarririk eta altzaririk gabe, soila. Eremitorio estilizatua dirudi.

Bertara sartzean kareharrizko bloke bat besterik ez du aurkitzen bisitariak, gordinki ebakia, bere haizpeko lur heze eta guzti. Leihate zabalak horma biluzietan, ortzia eta inguruko mendiak agerian jarzen dituztenak. Zoruan harri leunduzko prisma jarlekutzat; eta horren inguruan kristalezko panelak, giza irudi lausotuak erakusten dituztenak, hainbat pertsonaia historiko iradokiz. Besterik ez.

Ez dago, egon, inolako misteriorik txoko soil eta desakralizatu honetan. Bisitariak, bisitari bakoitzak, darama bere baitan misterioa, barruti isil horretan aurkitu eta izendatzekotan, ahal izanez edota nahi izanez gero.

Kristal opakoetan lerro gordinez marrazturiko profilei begiratzuz, deiak egiten hasi naiz. Banan-banan deitu ditut Indietan hildakoen izenak, gehien miresten ditudanak, indiano Arantzazu-zaleen litanía luzea eginez bat-batean. Misiolariak deitu ditut, beren artilezko abitu latzez jantzita, Arantzazutik Mundu Berrirantz abiatu zirenak hango jendeak ebanjelizatzerá. Ameriketán eraikitako Arantzazuko Andre Mariaren Kofradia eta Ermandadeetako lehendakariak eta mai-



ordomoak deitu ditut, kolonien garaiko jaun deboto eta pinpirrindu haiek, alegia, uniforme intsigniadunez, txaleko brokatudunez eta kasaka botoidunez janzten ziren haiek.

Eta litania horren errezotan abiatuta, gorputz osoa taupadaka hasi zait barrutik larruazaleraino, eta bat-batean Amerikaren usaina hasi naiz aditzen: Karibeko faktorieta tabakoarena, Mexikoko tortillaren lurrin bare eta hain etxebarrukoarena, Costa Ricako *gallopinto*arena, *tamales de pique* direlako usain garraza, arto xigortuarena, *arepa*arena, txitxarena...

Nire litanien konjuruak erakarrita, hor hasi dira etortzen euskal indianoak, ikus-tezinak, antzaldatuak, Arantzazu “planetaren neurriko” bihurtu zuten haiek, nire adiskide eta historialari Joseba Intxaustik ederki asko idatzi zuenez.

Fr. Joan Zumarragakoa da aurrena. Harro dago barrutik Durangotar ospetsu hori frantziskotar abitua Arantzazun hartu izanaz, Mexikoko lehen apezpiku eta artzapezpiku izanaz beste edo areago.


Zumarragaren orpoz orpo dator Fr. Joan Luzuriaga, Ozaetako semea. 1686an

Mexikon argitaraturiko *Paraninfo Celeste. Historia de la Mystica zarza, milagrosa imagen y prodigioso santuario de Arantzazu* bere obraren alea dakar bere abituaren mahuka barruan historialari arabarrak.

Frantziskotar indianoen artean agertu zait Fr. Pablo Lete ere, eskubide osoz eta inor baino alaiago jai-giroan. Eskoriatzan jaio zen; 1949an itzuli zen Kubatik, fraideen ministro probintzial izateko. Bera izan zen Arantzazuko basilika berriaren asmatzaile eta eraikitzaile handia. Hori burutu baino lehen hil zen, 1952an, Amerikara zihoala hegazkinez.

Leteren itzalpean ageri da Pablo Ruiz de Gámiz eta Díez de Ulzurrun jauna, indiano sekularra; Kubako bere azukrefabriketatik sakeleratutako diruekin ordaindu zuen Arantzazun eraikin eskerga bat, troka sakonetik gora jaso, eta gero basilika berriaren absidearen oinarria izango zena.

Kubatik datorkit Fr. Jose Antonio Urkiola ere, latin klasikoaz –dotore eta xar-mantez– idatzitako Arantzazuko Andre Mariaren ofizio liturgikoaren autorea; Horazioen beraren odekin lehian jarri ahal



dira horren gorazarreak, hain baitira eder eta bikainak.

Boliviako Potosin eraikitako Arantzazuko Andre Mariaren lehen Kofradia amerikar hartatik –1601ekoak ditu konstituzioak–, Martin Garzia Loiolakoa, Kapitain eta Korregidorea, datorkit. Su eman zioten horren jauregiari “vicuñatarrek”, Andaluziako eta Extremadurako meatzariak, 1581etik aurrera euskal meatzarien aurka gerra odoltsuetan nahasita zebiltzanek. Martin Elizalde, Diego Mendieta, Tomas Aiala, Joan Agirre, Kristobal Arteaga eta beste ehunen bat euskal indianorekin batera dator Martin Garzia Loiolakoa: denak Arantzazu-zaleak, baita ondo aberastuak ere, Potosiko muinoko zilar-meatzei esker.

Limako Ermandadearen ordezkari nagusi Joan Urrutia Obiaga jauna dator, “Gipuzkoa probintziako bizkaino noblea”, hamabi mila urrezko pesoen kostuarekin 1646an egundoko erretaula landuarazi zuena, “Arantzazuko Ama Birjina soberanaren jarleku eta aulki izan zedin”. Urrutiarekin batera dator, beronen erretaula urreztatuan ipintzekoa zen Andre Mariaren irudia –“elorri gainean

modu mirarizkoan agertu zen jatorrizkoarena” – zizelkatu zuen “autore ausarta” ere, ezezaguna izenez.

Limako Ermandadeko Maiordomoarekin, aipaturiko Joan Urrutia jaunarekin batera datoz, baita ere, titulu distiratsuen jabe diren beste kofrade hauek: Joan Lea Plaza Erregeorderriko Armadaren Administralari Orokorra, Ordoño Agirre Ejerzitoloko Jenerala, Ibarra Belasko lizentziatua eta Limako Erret Audientziako Abokatua, Domingo Garro jauna, Inkisizioko Tribunaleko Kontadorea.

Mexiko hiriburu aztekan Arantzazuko Kofradiak izan zituen hirurogeita hamabi Errektore Lehendakariak aurkeztu zaizkit, Manuel Aldako buru dutela; azken hau hiru alditan izan zen hiriko Kofradiaren Errektore; eta historia hain loriatsuko “Neska Euskaldunen Ikastetxearen” –*Colegio de las Vizcainas* zelakoaren– defendatzaile porrokatua izan zen gainera, horren autonomia babestuz, baita Mexikoko Artzapezpikuaren asmoren batzuen aurka ere.

Hor dator Puebla de los Ángeles-eko *Noble y Real Cofradiako* zenbait bazkide ere. Mexiko bereko Guadalajarakotik, Esteban Aranburu jauna iritsi da, 1770ean

Andre Mariari aldarea eskaini ziona; eta horrekin batera Basauritarren familia osoa, hari eliza ederra eraiki ziona.

Zacatecas hiritik heldu da Fr. Jose Arlegi arabarra, euforiko –Arantzazuko Andre Mariak aldare dotore-dotorea eduki zuen hiri horretan, Fr. Antonio Mendigutiak eraikitako frantziskotarren elizan–; kronikalari ospetsua eta ministro probintziala izana da bera. Liburuxka bat du eskutan Aita Arlegik, 1719an Mexikon argitaratua, Andre Mariaren gorazarrez berak idatzitako sermoi barrokoa dakarrena.

Frantzisko Larrinaga Jenerala, Ipazterren jaioa, eta Jose Bardezi eta Aginako datoz orain, Santiago Txilekoan eraikitako Andre Mariaren Ermandadearen izenean.

Luzea da Buenos Airesetik iristen ari den errenkada; hiri horretan ehun urtetik gora iraun zuen euskaldunen Kofradiak. Horkoekin batera dator Salvador Ezpeleta jaun nafarra, Argentinako Victoria hiriarren fundatzailea, eta 1803an Arantzazuko Andre Mariaren kapera bertan eraiki zue-na, hiriaren zaindari izendatuz hori.

Jose Erreparaz jaunak, “eskuzabaltasun agortezineko gizonak”, eta Jose Igna-

zio Alustiza Maiordomoak, Mexikoko San Luis de Potosí hirian beneraturiko Andre Maria “euskaldunarenganako” beren debozioaren berri dakarkigute.

Frantzisko Etxebeste jauna da azkena litania honetako goi-mailako pertsonaien zerrendan. Espainiako erregearen Galeoien Jeneral zelarik, Arantzazuko Andre Mariaren Kofradia eraiki zuen Manila hirian.

Misterioko isiltasunean nire deiari erantzun dion talderik bihotzekoena, Ameriketako mendi eta ibarretako herrixka galduetan jardun ziren meatzari eta nekazari eroapen handiko haiena da, ohorezko titulurik izan ez zutenena, ezta dobloirik ere beren patrika zulatuetan, pobre izaki; Arantzazuko Andre Maria benetako deboziotan eduki zuten haiek eta kaperak eraiki zizkieten, bizi izan ziren herrixketan: Hualcayoc-en eta Chocas-en (Peru), Huilás-en (Kolonbia), Concepción del Oro-n eta Sombrerete-n (Mexiko), Térraba-n (Costa Rica), Maracaibo lakuaren ondoko Santa Rita-n (Venezuela).

Misterioko harrizko jarleku gogor honetan eserita, hunkiturik atzeman dut Arantzazuko Andre Mariak Ameriketan eduki zituen —eta oraindik ere badituen—

deboto ezin kontatuzkoen presentzia misteriozkoa. Arantzazuren historia erdibidean geratzen da Ameriketako dimentsioa kontuan ez hartzerantz. Beharrezkoa da horren balioa nabarian jartzea, dagoen hutsunea betez.

Zoragarria izan da Arantzazuko Andre Maria Indietan beneratu zuten hainbat euskaldun neure herritarrekin topo egitea txoko honetan. Irtetean, atseginez begiratu diot Misterioaren kanpoaldean ipinitako Oteitzaren irudi ederrari. Andre Maria Euskal Herriari eskaintzen dion fraide frantziskotarra irudikatzen du. Orobat ari zaie eskaintzen Ameriketako euskaldunei, bai joandako mendeetan Arantzazuko Andre Maria beneratu izan zutenei, bai gaur egun ere berari erregutzen diotenei. Ez litzateke lekuz kanpo egongo Arantzazuren dimentsio amerikarrak berariazko ezaugarriren bat edukitzea hemen.



## 5. FRAIDEEN KLAUSTROAN ITZULIKA ETA GALDEZKA

Arratsalde erdi inguruan, zerua oraindik argi dagoelarik, baina eguna bere ibilia moteltzen eta aurreko orduetan gertaturiko guztia erlatibizatzen hasten den une horretan, jakinduriazko bere lehen ikasgaiak eman ohi dituen denbora-tarte horretantxe, sarrarazi nau Arantzazuko frantziskotarren komentura Gandiaga Topagunea erakutsia didan nire adiskide bihozberak.



Anaia atezainaren oniritziarekin –horen aurpegian sumatu ahal dugu urteek eta otoitzek baketuriko espiritua–, bagoaz barrura, eta ate bi zeharkatuz, klausurako barrutira heldu gara. Sekulartu samartua dago hemengo klausura, emakume erizain edo idazkariren bat edo beste bertan ari direlarik. Pauso lirainez dabilta horiek, eskailetan gora edo behera.

Monasterioetako klausura zorrotza zen garaian, fraide edo moja izan gabe bisitan lehen aldikoz klaustrora sartzen zenari uz-kurtu egiten zitzaion zilborra. Gaur egun, turismoari eta zentzu onari esker, argituak daude ezkutukoaren itzal faltsu haiek.

Arantzazuko frantziskotarren komentu barrua eroso da eta erakargarria, bere zurezko zoru ondo argizariztatu eta guzti, museo bihurturiko bere klaustroekin –bailio handiko kuadroak daude zalantzarik gabe bertan–; hala ere, horko bakardadeak larrituta uzten zaitu. Ez da oraindik mende erdirik ere, ehundik gora fraidek betetzen zuten etxe hau; horietako gehienak teologiako ikasle gazteak ziren. Gaur egun oso bakanak dira bertako gelen arteko korridoretan hara edo hona ikusi ahal dituzun fraideak; eta horietako

gehienek pausatua dute ibilera, adinagatik nahiz gaixotasun-ajeengatik.

Liburutegia ederki antolatuta daukate; eta gertu dago kulturaren iturrietan edan nahi duten komentutik kanpoko ikasleen eskura; bertan dago atsedean onean urteetan barna erlijiosoek pilaturiko zientzia, milaka liburukitan bildua. Jantokia, ordea, ehun eta berrogeita hamar lagunentzako lekua zeukan “errefektorio” itzel hura, itxita daukate, oraingo anaiartearentzat nahikoa baitute neurri txikiagoko jangela.

Liburutegiaren eremu handia eta horako ordena miretsi ondoren, komentuko hiru klaustroetako batera eramane nau nire *ciceroneak*. Arkitektura xumekoa da berau, baina Paul Urangak pintaturiko mihise galantak hantxe daude hormetan zintzilikatuta; eta tenpluaren fatxadako frisoaren, Oteitzak zizelkatuaren, argazki harrigarrien sail luzea ere bai.

San Frantziskok eta haren hasierako jarraitzaileek ez zituzten beren bizimodurako egokitzen jotzen klaustroaren inguruan eraikitako komentuak. “Bidekoak” ziren fraide haiek, eta landa irekia zuten

beren klaustroa, bertako bide, mendi eta ibai eta guzti, jendeagandik hurbil beti. Geroago, beti gertatu ohi denez, legeen, orduen eta hormen menpean ipini zuten Ebanjelioko libertatea, eta klaustro bat edo gehiago erdian zutela eraiki zituzten frantziskotarren komentuak, monakoen monasterioen arabera; halaxe Arantzazuko hau ere.

— Begira —esan dit nire lagunak lehen urratsak egitearekin batera—; hemen gara berriro geure klaustro maite honen inguruan itzulika! Gure fraide-bizimoduan peripatetikoak izatera behartuak gaude, hau da, zirkuluan ibiltzera, Aristoteles zaharren ikasleak bezala.

— Baliozkoak direla uste dut klaustroak —erantsi diot, argitze aldera—; baina ez dute inoiz komentu-bizitza barrura-begirakoaren eta bere kabuz eta baitan aski delakoaren sinbolo izan behar.

— Dena da erlatiboa, adiskide —eten dit nire *cicerone* honek, beraren izenez izendatu gabea dudanak—. Nor bere baitan piska bat isolatzea eta bakartzea egokia da, bizimodua oinarri sendotan ipini ahal izateko; eta gure komentuetako klaustroek eta gelek erraztu egin zieten

erlijiosoei santutasunaren eta kulturaren bidea egitea. Adibidez, gure Aita Villasanté —goian bego!— Euskaltzaindiko burua izan zen hemezortzi urtez; baina zuzentzen zuen erakunde ohoretsu horren egoitzan baino gehiago komentu honetako gela apalean idatzi zituen bere obra ugari eta baliotsuak. Gauza bera esan behar Adrian Lizarralde, Kandido Zubizarreta eta Ignazio Omaetxebarriari buruz, edo Jose Luis Albizu teologoari buruz; eta Bitoriano Gandiaga poetari buruz, jakina.

— Ah, Bitoriano handia! Izan nuen nik hura ezagutzeko aukera, zorionez, baina solasaldi gutxi eduki nuen berarekin. Aingerua bezain sentibera zen gure poeta.

— Baina basakatua bezain mendirakoi.

— Mendirakoia bai —ihardetsi diot—, baina basakatua ez. Nik dakidanez, ez zen inoiz ez marrukari ez amarrutsu izan, eta bai leiala, jasankorra eta guztiz zintzoa.

— Eta jakintsua gainera. Basakatua izan zen, izadiarekin bat egiteko piztien senaren modukoa zuelako. Inguruko paraje basatietan barrena sartu ohi zen, sor eta gor eginda mendiaren musika entzutearren, haizearen indarra sentitzeko bere

gorputzean, perretxikoak aurkitzeko beren leku ezkutuetan, euriaren eta elurra-  
ren bedeinkazioa zuhaitzekin batera go-  
zatzeko. Gaitasun apartekoa zuen hark  
lurraren mintzaira ulertzeko.

— Baina, idatzi ere, kanpoan idazten  
al zuen?

— Ez, idatzi, bere gelan. Komentuko  
bere gela isilean.

— Uste dudanez, haren idatzietan *Elo-  
rri* liburuak jasotzen du egokien landa-lu-  
rreko giro hori.

— Saiatu zen, saiatu, era berean, hi-  
riko langileen buruhauste eta estutasu-  
nen eta makinaren menpekoen mundua  
barrutik ulertzen, gizatasunaren aurka-  
koa den gure industri aroko erritmo biz-  
kortuaren barruan sartzen. Nahikoa izan  
zuen Madrilen udaldiren bat ematea, bere  
liburu bikainetako bat idazteko: *Uda ba-  
tez Madrilen*, 1977an argitaratua. Sola-  
saldi luzeak eduki zituen Oteitza eskul-  
torearekin, artistaren proiektuei eta in-  
tuizio distiratsuei buruz. Oteitzak atera  
zuen Gandiaga, garai hartan poetak bizi  
zuen literatur basamortu agorretik. Haren  
beste liburuetako bat, *Hiru gizon bakarka*



(1974an argitaratua) eskultore handiarekin landutako adiskidetasunaren fruitua izan zen. Aldi berean, euskara hizkuntza zaharra aberasten saiatu zen, euskaraz idatzi baitzituen soilik bere olerkiak, gai berri modernoei buruzkoak ere. Horrelaxe aldendu zen bera komentu barneko bizitza barrukoiegiaren arriskutik.

— Adierazi al zuen inoiz, fraideen bizimoduaren baldintzetakoren batzuk murrizgarri gertatzen zaizkiela horiei kulturaren alorrean aritzeko?

— *Elorri* idatzi zuen garaiaz ari zela, aipatu zuen, bai, arrisku hori. Garai hartan, bera artean gaztea zelarik, komentuan bizi, “etxe handi isolatu batean bizi litekeen eran” bizi zela aitortu zuen. Beti eduki izan dugu fraideok joerarik, mundua eta historia, artea eta kultura erlijioaren ikuspegitik bakarrik ikustekoa. Salvatore Mixelena Arantzazuko beste olerkari handietakoaren, *Arantzazu. Euskal Sinismenaren poema*-ren autorearen obrak ere ba omen du halako nazional-katolizismoaren kutsuren bat; argitaratu ere, halako garaitan argitaratu zuen liburua, 1949an.

— Ulertzekoa da hori; baina irakurria dut —ohartarazi dut neure solaskidea—,

Arantzazuko oraingo erlijiosoak ibilbide humanistagoak ari direla urratzen.

— Halaxe da, bai. 2006an hitzaldi sonatua eman zuen Joxe Arregik Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean, itzal handiko etxe horretako aretoan. Aitortu ondoren, nola izan den Arantzazu euskal kulturaren eta erlijioaren arteko haustura edo krisiaren testigu, hauxe gaineratu zuen: Gandiaga Topagunea, adibidez, proiektu egokia dela erlijioak daukan berritu beharrari erantzuteko, horren eta euskal kultura berri eta aldakorraren arteko harremana lotze aldera.

Arraina uretan bezala dabil nire erakuslea kulturaren gai honetan. Eta zera gaineratu dit:

— Zuk badakizu ondotxo, erlijioa eta kultura ez daudela bata bestearen aurka, erlijioa ulertzen badugu, ulertu, sakontasunez bizitzea bezala, fede arrazoituz bizitzea bezala; inspirazio-elementutzat hartzen badugu erlijioa. Batak bestea bermatu behar dute erlijioak eta kulturak; areago, batak bestean txertatuta behar dute. Dena dela, txertaketa hori mesedera-koa eta bideragarria izango bada, eta, no-

la ez, elementu bakoitzaren autonomia errespetatuz egina, horretarako behar du alde bakoitzak bere autokritika egiazkoa eta ausarta egin, eta, jakina, batak bestea onartu.

— Utz iezadazu zerbait eransten neure aldetik —esan diot—. Eginak ditudan irakurketen arabera, arazo labain honen lekuko aproposa da gure Bitoriano Gandiaga, berak erakutsi baitzuen kulturaren eta erlijioaren arteko txertaketa egoki egiteko irizpide bat, erraza: bizipoza eta edertasuna sustatuko dituen erlijio-modua lantzen ahalegintzea, alegia. Fedor M. Dostoievski nobelista errusiarrek galdera hauxe jarri zuen: “Zein edertasunek salbatuko du mundua?” Gandiagak lortu egin zuen edertasun hori aurkitzea, eta horrexek askatu zuen bera erlijioaren halako arau zorrotzegietatik. Maitasunaren fruitua izan behar du edertasunak, Gandiagaren iritziz. Arantzazu ere ederra izan, ederra dela baieztatu zuen, leku maitatua, jendearentzat santutegi bihotzekoa den neurrian. Berak idatzia da honako bertso adierazgarri hau, hain sinesmen handiz sinesten zuen hark ederraren iraunkortasunean:



Hilgo naiz, ta edertasunak  
jarraituko du lurrean.  
Aleluia!

Diren guztiak izan daitezke ederrak fededunarentzat, maitasunetik sortuak behar baitute izan denek. Bizitzaren horrelako ikuspegia erraz bateratu ahal dugu kultura sekulartuenarekin.

— Ikusten duzu —esan dit nire lagunak—. Joan eta etorri klaustroan, hara eta hona, jira eta bira, ia ohartu gabe, kulturen eta ederraren labirintoraino sartuak gara, eta gure Gandiaga bera Dostoievski-rekin korapilatzeraino iritsi gara.

Elkarri aupegira begiratu eta barrezka hasi gara. Galdera hauxe ipini diot orduan adiskide peripatetikoari:

— Eta zer egin dezakegu kulturaren alorrean fraideok, Jainkoak ipini gaituen mundu sekulartu honetan?

— Frantziskotar izaten saiatu —erantzun dit—, San Frantziskoren jarraitzaile benetakoak izaten. Santua izateaz gain, poeta izan zen hura, alaia, kultura gizatiarraren sustatzaile, krisian zegoen gizartearen berritzaile. Gure Ordena “birsortu” egin behar dela, diote gaur. Kultura

modernoarekiko geure harremanean ez dugu horren aurrez aurre jarri behar, ez hori gaitzetsi behar, eta bai horren gauza onak eta txarrak bereizteko eta horrekin elkarrizketa egiteko gauza izan. Eta beti ere, gu geu txikienak izanez eta alaitasunez, bazterretik-edo jardunez, giza balioren autonomia errespetatuz, horiek aberasten saiatuz, baina inoren barrutia geuretzat hartu gabe, “giza sorkari guztien menpeko”, San Frantziskok oharrarazten digunez, ez jokatzu jauntxo bezala, eskeko bezala baizik, beti ikasteko prest, inor gutxietsi gabe, inor juzgatu gabe...

— Beraz, irekita dauzkagu frantziskotarrok kultura sekulartuaren ateak.

— Benetakoak baldin bagara, bai... Geure klaustro erosoetan jira eta bira ibili beharrean, mundu modernora irekitzen bagara, bakearen eta justiziaren, alaitasunaren eta maitasunaren hazia ereiteko, orduan bai.

— Hau da, saiatzen bagara, saiatu, lan-kidetzan, elkarrizketa zabaltzen eta edertasunaren argiaz argitzen bizitza.

— Edo, San Frantziskok zioenez, izaki guztien senide baldin bagara, eta “po-

bretasuna eta apaltasuna eta Jesu Kristo  
gure Jaunaren Ebanjelio santua” betetzen  
baditugu.

— Amen.



## 6. KANPAIEN MUSIKA, HERRIAREN KANTA

Klaustroko neure joan-etorrien eta itzulien ondoren, komentutik kanpora arratseko argi apaletara irtetera noan une berean hasi da kanpandorreko karilloia jotzen; Arantzazu osoa bete ohi du horrek musikalaz ordu laurdenero.


Brontze-soinu bortitzen eraginez, atera egin da arratsa bere ondo irabazitako sosegutik, basilikaren aurrealdeko frisoko Oteitzaren Apostoluak asaldu egin dire-

la ematen du, beren baitan aztoraturik, eta badirudi bertako horman goiko Pietateak zeru urdinera nahi duela hegan egin.

Eragin apartekoa du musikaren indarrak, karilloiaren kanpai-hots neurritsuak gauza izan baitira santutegiko giro osoa suspertzeko eta Oteitzaren arteari eta basilikaren arkitekturari bizitasun berria emateko. Musikarik ezean, erdibidean edo geratzen da Arantzazu bere edertasunean, eta baita bere izateko arrazoian ere; areago, musikarik gabe, lurralde menditsu honek eta santutegiko harri iluneko arteak ilunarazi egiten dute erromesaren arima, eta komentuko bizitzak nahiz bertako fraideek ospatzen duten liturgiak galdu egiten dute beren frantziskotar alaitasuna. Zuzen eskatu zuen, duela zenbait urte, Bernardo Atxaga idazleak, jarrai zezala Asisko Frantziskok bere *Senide Eguzkiaren Kantikarekin* Arantzazu argitzen:

“Argi dezala, berriro ere,  
Arantzazu aldea”.

Leonardo Zelaia fraidearen *Arantzazu aldean* gorazarrearen lehen koartetoko notak bikain solfeatu ondoren, ordu bakoitzaren iritsiera aldarrikatzen du karilloiak, akorde trinko, kategoriko eta sendoz. Ho-



rrela lortzen dute karilloiaren kanpai-ho-  
tsek –beren berezko xedean gora– eguneko  
ordu guztiak musikalizatzea, batetik, eta,  
aldarrikatzea, bestetik, bizitzari jai-giroa  
ematen eta zuzengabekeria eta oinazea  
garaitzen laguntzea duela helburu Aran-  
tzazuk. Horixe da, era berean, 1925ean  
Santutegiari emandako harmarriaren esa-  
nahi hain optimista hura; musikaz adi-  
erazten ditu Zelaiak horren sinboloak,  
aipaturiko bere gorazarreko leloan: fran-  
tziskotar kordoia –armarria inguratzen  
duena–, izar distiratsua goialdean –bere  
argiaz herensugea infernuko leizeetara  
amilarazten duena–, eta artzain-arrana,  
Andre Maria agertu zen elorritik zintzilik  
dagoena.

Arantzazu aldean  
izar bat da ageri.  
Infernura egin du  
sugeak ihesi.  
Arantzatik txilin bat  
berez ari da dilindari.  
Jesus Haurtxoarekin  
dago Andra Mari.

Adierazgarria da arranaren (“txilina-  
ren”) xehetasun hori; hantxe dago gaur  
egun ere jatorrizkoa, basilikako absidean,

Andre Maria eserita dagoen elorritik zintzilik. Arantzazuko zeruan izarraren –Salbatzalearen amaren sinbolo horren– agertzeak sortzen duen poza iragartzen du arranak; baina ezin dugu ahortzi, musika tresna ere badela hori bere jatorrian, eta, mendia edo zelaia alaitzearekin batera, bere ardia, hau da, bere aberastasuna eta ondasuna non duen adierazten diola arztainari. Hitz batez, arranaren musika xumeak –beste edozein musikak bezala– ireki egiten die bidea egiari eta pozari.

Bada Arantzazuko Andre Mariaren pinturazko irudikapen bat, musikarena guztiz nabarmen jartzen duena. Cristóbal Villalpando pintorearen, barroko mexikarraren lekukoaren, koadroa da, hain zuzen. N<sup>o</sup>S<sup>o</sup>D. AR<sup>^</sup>NTZAZU titulua ipini zion bere mihise koloretsuari; eta bertan, benetako kanpai ozen bezala, bere mihi eta guzti, nabarmen-nabarmen irudikatu zuen arrana, hori jotzeko soka luzea ere erantsiz; eta gainera alai-alai txirula jotzen irudikatu zuen Errodrigotxo artzaina, eta, gorago, Andre Maria, dozena bat txori kantarik inguratuta.

Duela bostehun urtetik gora santutegia zaintzen ari diren frantziskotarrek zego-

kion garrantzia eman izan diote musikari. Ez dute ahanzi, Andre Mariaren ustezko agerpena, eta Arantzazura bidea irekitzeko Arrasateko eta Oñatiko kofradiek eta erromesek egindako lan latz haiek abestitan daudela lehendabizi dokumentatuta, Arantzazuko Erromantze edo “Kanta Zaharretan”, hain zuzen ere, herritik sortutako bertso musikatu xume horietan. Horrela aztertu zituen horiek Ignazio Omaetxebarria ikertzaile eta musikariak: “Arantzazuko agerpen probidentziazkoari buruzko elezahar-funtsari gaineraturiko ondorengo geruzatza” hartuz kantok; eta horien ikerketa filologikoa egin zuen. Sustraietarago joz, Arantzazuko Kanta Zaharren funtsean dauden arazo historikoak azaleratu ditu Joxe Azurmendik; eta zintzotasunez egin du, egin ere, benetan lana, “pusketa denak banan banan” aztertuz, berak aitortzen duenez. Arantzazuko musika tradizio hori jasoz, *Ogei kanta Arantzazuko* liburua argitaratu zuen 1952an Salvatore Mitxelena olerkariak.

Kantuz adierazi ohi zuten lehenagoko mendeetako erromesek beren debozioa hasieratik bertatik, Salbea abestuz, alegia, santutegira iristean, gorago kopiatuta utzi



dugun eta 1491 baino lehenago konposatua den *Agostuaren hamabosgarren / Andre Maria goizean...* balada ederrak egiaztatzen duenez.

“Badakigu, Arantzazuko lehenengo liturgia ilunabarreko Salbearen kanta xumea zela”, gogoratu digu J. Azurmendik.

Abestiak ez zuen hutsik egiten santutegian egin ohi zituzten penitentzi elizkizun soil-soilenetan ere. Joan Luzuriaga historialariak ematen digu horren berri:

“Beilan igaro ohi dute [erromesek] gau osoa belauniko elizan” (beren buruak azotetz zigortuz, edo aldareak bisitatz, kateak eta girgiluak oinetan eta gurutzeak bizkarrean dituztela); “horrelako penitentzien latza eta gogorra kanta gozoek biguntzen eta arintzen dute, gaueko zenbait ordutan entzun ohi ditugunez, euskaraz”.

Garai barrokoa iristean, kultura jasoa forma hartu zuen gehienbat musikak Arantzazun. Hori ez da orduan herriaren erlijiozko sentimendu xaloen adierazgarri bakarrik, eta bai Arantzazuko bertako elite eskolatuak landuriko balio estetikoaren agerpen ere. Horixe erakusten digute J. Bagües eta beste adituek Arantzazuko musika-artxiboan egindako azter-

lanek. Hala ere, Kanta Zaharrak ez ziren desagertu.

Hain indartsu datorren musika-arro berri horretan berrogeita hamar bat aho-tsetarainoko korua osatzen dute fraideek eta bere orkestra antolatzen du Arantzazuk. Izan ere, Pello Zabalak zehazten digunez, Arantzazuko Musika-kaperak honako tresna hauek zituen garai barroko distiratsu hartan: “lau bibolin, biolona, arpa, bi kitarra, klabizenbaloa, monokordioa, bi baxoi, korneta, klabikordioa, txirula, zenbait txirimia eta tronpeta, eta klarinen bat edo beste, organo ederraz gain”. Peñafloidako kondeak ere ohoretzat hartu zuen berak konposaturiko moteteetako bat Arantzazun abestu ahal izana.

Hogeita hamar konposatzaile baino gehiago sortu ziren garai hartan Arantzazuko fraideen artean, organojoleez eta organogileez gain, hain sutsu heldu zioten, heldu ere, musikari. Horrela izan zen, 1834ko erreketak suntsikorrek biolinak eta klabikordioak erraustu, organoaren akordeak isilarazi eta fraideen ahotsak erabat mututu zituen arte.

XX. mendearen hasieran, fraideen komunitatea berrantolatu eta eliza berre-

raiki ondoren, berriro suspertu zen musika Arantzazun. Lehen erlijioso haiek osaturiko koro apalaren zuzendaritza Jose Maria Arregi musikari handiak hartu zuzen 1919an. “Musika alor guztietan kategoria altuko fraidea”, deitzen du Arregi arratziarra Arantzazuko kronistak. Haren zuzendaritzapean mundu osoko musikari zabaldu zion koro berrituak bere kantutegia: Pfeffer, Gretchaninov, Franz Joseph Haydn, Pacini, Palestrina, Victoria, John A. Pietro, Hartman...

1970-1990 urteetako bokazio-krisiak eraginda, goitik behera murriztu zen erlijiosoen eta ikasle abeslarien kopurua. 1978an itxi egin zuten teologiako ikastegia, eta 1990ean mutikoen seminarioa. Hutsuneari aurre eginez, kantari talde murriztu baina aukeratuak musikalizatu izan ditu gerora liturgia ospakizunak, eliz batzarreari gero eta partaidetza zabalagoa emanaz aldi berean. Berriro ere argi geratu da, ez dagoela eliz korurik, fedeko misterioak ospatzera bilduriko eliztarren –herritarren– batzarreak osatutakoa baino hoberik.

Musikari buruzko neure gogoeta hauen artean egin dut neure gaurko azken

ibilalditxoan Arantzazun. Sindika jatetxearen terrazatik egon naiz begira orain arteko ostatu zaharraren lekuan eraiki duten hotel berriari. Hiru izarrekoa dela esan didate, berrogeita hamabi logela zabal eta erosoak omen dituela, bi jangela, eta hidroterapia therma edo SPA ere bai, estresak jotakoen mesedetan.

Ikusi ahal izan dut, era berean, neure ibilaldian fraideen kanposantua inguratzen duen arkupe zaharra, erdi-puntuko arkuz eratua. Harritzekoa da, baina egia! Arkupe isilari begiratzearekin batera, nire oroimenaren txokoren batean melodia gregoriano alai hura iratzarri zait, oraindik orain abesten dutena, hildako fraideen bat azken egonlekura daramatenean:

*In paradisum deducant te Angeli...*

–Eraman zaitzatela aingeruek paradisu–. Bai, senide Heriotzari abesten diogu fededunok. Lehenagoko mendeetakoek eta gaurkook. Etty Hillesum neska judua, bere familiakoekin eta beste hainbat judurekin Auschwitz-era zeramatenean, honako hitz hauek utzi zituen idatzita bere azken mezutzat (1943ko irailaren 7an):

“Abestuz utzi dugu kontzentrazio esparrua”.



Zorionekoak fraideak, beren azken geletan –heriotzako geletan– atsedenean daudenak, Arantzazuko betiko bakeleku horretan! Hortxe dago nire hainbat anaia fraide, hainbat adiskide, irakasle, ikaskide, ni bezalako hainbat misiolari. Oraindik ere entzuten ari dira, azkenik gabeko bizitzaren isilean, behin batean abestu zieten azken kanta hura:

*In paradisum deducant te Angeli...*

Kanpaien musikaz gain, liturgiako kantak ere entzun ahal ditugu Arantzazun, korua eta eliztarren batzarrea txandaka. Santutegitik irtenda, ordea, kanpoan, inguruko mendietan, bereziki Urbiako zelaiune zabal berdean, milaka ardien zintzarri eta arranek alaitzen dute giroa; horien hotsak, berriz, arkumeen beheka samurrekin eta behor eta zaldien irrintzi gartsuekin nahasten dira. Troketatik gora dator txorien musika: bakoitzak du berea. Orain dela ez denbora luze, santutegi inguruko txori kantarien ahotssetako batzuk deskribatzen saiatu zen Arantzazuko fraideetako bat:

“Txistuka ari da txonta zuhaitz-adarren gainean distiratsu; sasi-txorria ezkutuan eta ozenki ari da kantari (nolako

kanta gero!); zozoa solasean ari da lasai; eztarri-hotsetan nekatu gabe ari da buz-tangorria teilatu ertzean; gorgorka ari dira enarak, eta jolasean etengabe airearekin, beraiek ere airea direlakoan”.

Testu eder horren idazlea ez da inolako ornitologoa, teologian aditua baino... Joxe Arregi du izena. Txorien kantaz mintzatzen denean –Jainkoaren hitza da hori ere–, bide onetik dabil teologoa. Klemente Alexandriakoa Elizako Doktorea, aipatzen du Joxe Arregik txorien kantaren gorazarrea egin aurretik; bada, Klemen-tek zioen, teologia ez dela jendea aholkatzeko eta kontseilatzeko bakarrik, eta bai jendea kontsolatzeko ere... Txorien kanta bezala.

Arratseko nire musika giroko ibilal-dia amaituta, berriro sartu naiz komen-tura; afaltzeko ordua da. Neure anaia fraideekin afaltzea, hori bai dudala benetan kontsolagarri! Ozeano handiak ia bizitza osoan urrunean eduki dizkidan anaiekin berriro elkartzea, eta orain dela mende erdi elkarrekin adiskidetasun onean bizi izan gineneko oroitzapenak berritzea, bizikizun pizgarria da hori. Zori onak bisitatu du gau honetan

Karibeko misiolari hau, eta zorioneko sentitzen da. Afal ondoren eskaini didaten kikara bat kamamila –Urbiako kamamila aromatikoa– hartu ondoren, anaietako batek eraman nau lotarako seinالاتu didaten gelara. Erosoa da, garbia, soila, frantziskotarroi dagokiguna: ohe sinplea baina erakoa, zur oneko mahaia, trokako giro freskora ematen duen leihoa, eta gurutzea apaingarri bakartzat. Zer gehiago eska daiteke honelako monasterioan?

Gaueko hamarretatik aurrera kanpandorreko karilloiak ez du jotzen. Zarata guztiak isildu egiten dira komentuko barkadadean. Erabatekoa da isiltasuna. Bakarra da orduan musika, soinurik atera ahal duena: norbere baitan irekitzen den tarte misteriotso horretatik gora datorren musika, alegia. Ez dator hori kanpotik. Soinu egiten du, soinurik gabe, norberaren barruan. Mistikoeak eta poetek entzun egiten dute. Etty Hillesum nire judu fededun miresgarriak irakurriak zituen Eckhart maisua eta Ruysbroek mistikoa, eta aditu egiten zuen barne-musika hori iturriko uraren borborra bezala:

“Noizbehinka sentitu ohi dut neure baitan –idatzi zuen– belaunikatzeko irrika

bizia, eskuak aurpegian ditudala, horrela aurkitu nahian bakearen sakona, neure barneko barnenean ezkutaturiko iturria adituz”.


Hainbat mende lehenago horrelako musikaren antzeko esperientzia bizi izan zuen Asisko Frantzisko santuak –“Airean dabilela ematen du Frantziskok”, idatzi zuen Bernardo Atxagak–. Zelanok, San Frantziskoren biografo kronistak kontatzen du honako hau:

“Halako gau bateko isilean, gizon santua Jainkoagan meditatzen ernai zegoe-la, bat-batean zitara bat hasi zen soinu zoragarritz doinu guztiz gozoa jotzen... Ez zen inor ikusten, baina zitara-jotzailearen joan-etorriak batetik bestera argi sumatzen ziren doinuaren gora-beherengatik. (...) Beste honetara jokatzeko hark noizik behin: barnean irakiten zeukan espirituko doinu txiki gozoa, frantsez adierazten zuen kanpora; eta bere belarriak isilean sumatzen zuen murmurio jainkotiarra frantses kanta alaietan lehortzen zitzaion”.

Jakin ez dakit Arantzazuko fraideek entzuten ote duten horrelako musika bitxirik hemengo gau itxietan. Neure aldetik zintzo aitortzen dut ez dudala horrelakorik aditu neure barrunbeko gu-



ne isiletan. Dirudienez, ez daukat neure arimako entzumena Espirituak aski afinatua.



## 7. AZKEN AGURRA

Arantzazutik jaitsi aurretik, berriro sartu naiz basilikara, Andre Mariari agur esatera. Aldare nagusira hurbilduz noalarik poliki, argituz doa nabeko itzala, eta behin presbiterioaren oinera iritsita, argi betez ageri zait erretaula, absideko leihate zabalak eta gurutzadurako Eulateren beirateek ematen duten argiari esker. L. Muñozek margoturiko egundoko absidearen erdian, dirdaitsu ageri da Andre Mariaren irudia, ttipia eta xumea. Adi-adi begiratu diot, haren esanahia sumatu nahian.

Harrizkoa da iruditxoa, Erdi Aroko eskultore anonimoak landua, aski leundu gabea. Bere sabeleko fruitu duen haurra altzoan duela ageri da emakumearen irudia. Ez da inolako idoloa. Zeinua besterik ez da. Honako dilema hau dakarkigun zeinua: Andre Mariak duen haur hori, haurra besterik ez ote da? Askorentzat ez du inolako zentzurik galderak, baina halakoentzat ere sinbolo da irudi hori; eta gogoetarako barrutia da irudia erakusten zaigun eliza hau, norbere ideia eta sinesteei neurria hartzeko aukerakoa.

Nola gogoeta hala fedea libreak dira, bakoitza bere mailan; eta inork ez du eskubiderik fedegabea edo bere fede-bilaketaren erdibidean geratu dena juzgatzeko. Jainkoa eta Eliza piperrik axola ez zaizkionak ere ez du merezi inoren gutxiespenik. Hala ere, haizearen hizkera misteriozkoaren aurrean isilik eta errespetuz jartzen bagara, bidezkoa dugu Bibliaren orri horizatuetan idatziriko izen misterioitsuaren letrak ahoskatzen saiatzea, edota zuhaitz zaharren azalean edo imajina sakratuen trazuetan idatzirikoak, latzak izan ala leunak trazu horiek. Hala ere, egokia da Max Scheler filosofoak idatzitakoa ez ahaztea:

“Sentimendua izan daiteke askoz fina-  
goa eta eztiagoa bere eremuan, zorrotza  
den baino adimena berean”.

Francisco Umbral, 2007an hila, ez zen izan inola ere santu-jale, literatura alde-tik hain miresgarriak diren bere liburu eta artikuluetan aditzera ematen duenez; baina baditu bi esaldi sakontasun handi-koak, gizatasunaren nahiz fedearen al-detik. Hona aurrena:

“Erabateko iraultza egiteko, gizakia be-re duintasunera ekarriko duena, norbere buruaren kontrako iraultza da bakarrik beharrezkoa”.

Hitz horiei zein esanahi eman nahi zien, bere asmo enigmatikoen artean gor-de zuen zutabegileak. Baina bai potoloa gero esaldia! Hona bigarrena, Eliz gura-soren batek idatzia dirudiena:

“Pentsamenduaren urratsetan urrats zi-nez luzea norbere barruan ematen duguna da, norbere baitatik kanpora edo norbere baitarago jauzi egiteko”.

Urrats luze –“gran zancada”– horixe egitea errazten digu Arantzazuko san-tutegi honek, geure barruko sakonaren sakonera, geure baitako barruti espi-ritualera sarrarazten gaituenean bertoko

isiltasunak, batez ere basilikako Liturgia elizkizunetan.

Honetara definitu zuen, definitu ere, K. Rahner-ek liturgia:

“Bizitzaren erdigunearen erdienekotik irteerako adorazioaren forma hutsa”.

Nork bere kontzientzian gorde ohi ditu bere barruko goraldiak eta beheraldiak. Fraide frantziskotar honek hauxe dio bakar-bakarrik: Arantzazuko Andre Mariaren aurrean honako hitz xumeok jaulki dituela gaur, hari agur esatean:

*Agur, Maria... JAUNA da zurekin.*

Gero, luzaroan isilik eta meditazioan egon ondoren, hartu eskuan neure gorostimakila eta atera egin naiz elizatik kanpora, Senide Eguzkiak oparitzen digun goizeko argitara.

*Mariano Errasti,  
Aramaion jaioa (1926),  
frantziskotarra,  
misiolari Kuban,  
Puerto Ricon eta Santo Domingon  
berrogeita hamar urtetik gora.  
Kazetaria, poeta eta historialaria:  
hainbat obra ditu argitaratuak.*

